

# Goienkaria

2010eko apirilaren 23a > Egubakoitza > X. urtea > 418. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE  
www.goiena.net TOKIKOM

"Enpresa eta erakundeetatik oso gertu dagoen fakultatea da Enpresagintza"

Lander Beloki  
Enpresagintza Fakultateko dekanoa > 08



**G2a** Euskarazko lehen musikala aurkeztu dute Bergaran > 31

**ARRASATE** Urtarrilean hasiko dira Zerrajerako alokairuzko 140 etxeak egiten > 10

**ELGETA** Gerrako biktime elgetarrak omenduko dituzte domekan > 28

**KIROLA** 302 korrikalari espero dira domekan Aloñako VI. igoeran > 29

**JENDARTEA** > ERREPIDEAK

## Motozaleak babesteko pantailak

60.000 metro pantaila jarriko dituzte Arlaban eta Arrasate artean > 05

**JENDARTEA** > AZPIEGITURAK

## AHTren kontrako martxa etzi

Lurra, herrien etorkizuna: AHT gelditu! leloarekin mendi martxa deitu du Elkarlanak domekarako. Arrasate eta Aramaio artean egingo dute ibilaldia eta bidean barrena lanek egindako kalteen berri emango dute. > 04

## 'Ondo bizi' gehigarria

GOIENKARIArekin batera logopedia, ginekologia eta edertzearen gaineko orrialdeak, barrualdean.



**INGURUMENA** > HONDAKINAK

## Atez ateko bilketaz erabaki bat hartu nahi da bi hilabeteen

**BIDERAGARRIA** Txosten batek dio atez ateko bilketa "oso interesgarria" dela ingurumen eta diru aldetik

**IRITZI ONA** Mankomunitateko arduradunen esanetan, atez atekoa da hondakinak kudeatzeko modu "onena"

**AURTEN** Erabakia ahalik eta lasterren hartu nahi du Mankomunitateak, eta "aurten" zerbait egiten hasi > 02-03



DEIALDIA Jarduneko ordezkari, bazkide eta lagunek urteurrena eurekin ospatzeko dei egiten, Santa Ana parkean.

MONIKA BELASTEGI

## Jardunek 20. urtemuga ospatuko du bihar

Bergarako Jardun euskara elkarteak 20 urte betetzen ditu aurten. Urtemuga herritarrekin ospatu nahi du, eta, horretarako, ekitaldiz jositako eguna prestatu du biharko. Nabar-

men hazi da urteotan: 600 bazkide ditu egun, eta, garaiak asko aldatu diren arren, unean unekora egokitzen jakin du. Hori da, hain justu, indartsu segitzaren gakoetako bat. > 14

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Iritzia > 06  
Gutunak > 06  
Elkarrizketa > 08  
Herriak > 09-28  
Kirola > 29-30  
Kultura > 32-33  
Sailekuak > 35  
Telebista-Irratia > 36  
Zerbitzuak > 36  
Berri-zakua > 37  
Eskelak > 37  
Non-zer > 38-39

www.mondragon.edu/geb



**MGEP**  
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Etorriko zarela jakinarazi!  
943 71 21 91  
e-mail: aarriaran@eps.mondragon.edu

Lanerako gertu!

## GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2010-2011

Ate irekiko jardunaldiak Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUAK
apirilak 29 (osteguna)	18:00	Aula 5001	• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
maiatzak 22 (larunbata)	11:00	Aula 5001	• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua

Kontsulta pertsonalak: 943 71 21 91 • E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu

INGURUMENA &gt; HONDAKINAK

# Zaborra atez ate batzea gomendatzen du txostenak

**ONIRITZIA** Mankomunitateak jaso berri du atez ateko sistemaren gaineko txosten bat, eta oso interesgarritzat jotzen du hark

**AURTEN** Ingurumen batzordeburu Lasagabasterrek dioenez, adostasuna dago Mankomunitatean, eta "aurten" hasteko asmoa dago

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Atez ateko zabor bilketa ekonomikoki eta ekologikoki bideragarria da Debagoienean; gaur egun zabor-tasen bidez Mankomunitateak dituen diru-sarrerekin ia guztiz ordaintzeko modukoa, eta epe ertain-luzean aurrezteko bidea ematen duena. Horixe da Mankomunitateak jaso berri duen bideragarritasun txostenak ematen duen ondorioa. Mankomunitatearendako are interesgarriagoa da, diru aldetik, atez ateko sistemari autokonpostajearena gehitzen bazaio ahal den etxebizitzetan, hori ere gomendatzen baitu txostenak: bi aukera horiek batuta, 2010-2016 tartean 930.000 eurotik gora aurreztuko lituzke Mankomunitateak.

Bada, hori guztia laster errealitate iraultzaile bihurtu daiteke Debagoienean. Izan ere, Mankomunitateko Ingurumen batzordeburu Pedro Lasagabasterrek gura du erakundeak "datozen bi edo hiru hilabeteotan erabaki bat" har dezan. Lasagabaster berak argi dauka atez ateko bilketa dela "hondakinak kudeatzeko gaur egun dagoen sistema onena", eta ez dago bakarrik: "Mankomunitateko batzordeko kide gehienak ados daude", esaten digu. Txostena eskuartearen dute orain batzordeko kideek, eta segurue-

**Txostena aztertu egingo du Mankomunitateak, eta datozen bi hilabeteotan erabakia hartuko du; seguruenik, atez atekoaren aldekoa**

**"Mankomunitateko batzordeko kide gehienok argi daukagu atez atekoa dela gaur egun zaborra kudeatzeko dagoen sistemarik onena", dio Pedro Lasagabasterrek**

nik maiatzean landuko dute batzarrean, erabakiak hartzen hasteko asmoz.

**AUTOKONPOSTAJEAREN ALDE**

Jon Kortabarría Mantzizidor eta Jordi Colomer i Misse teknikariek egindako ikerketak hainbat arlo jorratzen ditu, eta hainbat proposamen botatzen ditu. Adibidez, atez ateko bilketaren osagarri ezinbesteko moduan, norberak egiteko konpostajea planteatzen du, eta ez bakarrik baserrietan edo lorategia duten etxeetan, baizik eta bideragarri ikusten du ere terrazak edo lorategi komunalak dituzten etxebizitzetarako. Bestalde, industria-guneak ere atez atekoan sartzeko beharra aipatzen du. Horrekin guztiarekin batera, ordenantza fiskalen aldaketa planteatzen du, zabor gehiago sortzen duenak gehiago ordain dezan filosofia jarraituz, eta, horren beste alde gisa, autokonpostatzen dutenek hobariak jasotzeko aukera: eurek %10 eta %40 arteko hobaria proposatzen dute.

Ikerketak ondorioztatzen duenez, "edukiontzi sistemaren kostu osoa, hondakin organikoak batu barik, 4.050.000 euro eskasekoa da, eta atez ateko alternatibarekin, urteko kopurua 4.300.000 euro baino zertxobait gutxiago da. Baloratu beharko



Hondakinak ontzietan etxeko atari kanpoaldean, Usurbilen.

litzateke, hortaz, 250.000 euroekin hondakin organikoak edukiontziatan batzea planteatu daitekeen atez ateko bilketaren adineko eraginkortasunarekin".

Ingurumenari dagokionez, egileek azpimarratzen dute atez

ateko bilketak etxeetan baztertzen diren hondakinak (hau da, birziklatu edo berrerabili ezin daitekeen zatia) %25 murrizten dela. Baztertzen den zabor hori da kudeaketa gastu handienak dituen; horregatik, egileen ondorioa

LABUR

## Tiana, Katalunian aitzindaria

Katalunian, Tiana herria izan zen atez ateko sistema ezarri zuen lehena, 2000n. Udalaren esanetan, modu horretara hondakinaren %85 batzen dituzte, eta biztanle bakoitzeko kostua pasa da 26,8 eurotik 27,1 eurora. Biztanleek nota jarri zioten sistema horri: 3,34 puntu 5en gainean.

## Vilassar de Mar herriko polemika

Katalunian ere izan da atez ateko sistemaren porrot handiena: Vilassar de Mar 18.000 biztanleko herriak 2006an ezarri zuen, eta 2008an kendu. Tartean, udal Gobernuak aldatu egin zen. Batzuek diote atez atekoa izan zela arrazoietako bat; beste batzuek, kudeaketa oso txarra izan zela.

## Bailara bi zonatan banatzeko ideia

Txostenak proposatzen du zabor organikoak asteen hiru egunean batzea; ontzi arinak, bitan; papera eta kartoia, baten; gainerakoak, baten; eta haur-oihalak, egunero. Bailara zonatan banatzen du: Arrasate, eta Elgeta, Bergara eta Antzuola; eta Oñati, eta Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga.



GOI  
ESKOLA  
POLITEKNIKOA  
ESKUELA  
POLITEKNICA  
SUPERIOR

**%100EKO  
IKASTARO FINANTZATUAK**

>> Euskal Erkidegoko Lanbide Koalifikazioen Sistema.  
>> EHEEko langileei eta langabetuei zuzendua.

IKASTAROAK		
Automatismo Elektronikoak	40 ordu	maiatzak 17
Automatizazio pneumatikoak eta elektroneumatikoak	40 ordu	ekainak 2
Automatizazio PLCaren bidez (STEP 7)	60 ordu	maiatzak 17
Automatizazio hidraulikoa	40 ordu	maiatzak 10
Fagor 8055T CNC TORNOaren programazioa	40 ordu	maiatzak 24
CAD 3D multzoak (Solid Works II)	30 ordu	maiatzak 31

**Izen ematea:**  
Tel.: 943 71 21 83 <http://www.mondragon.edu/iraunkor>

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak finantzatua.





DATUA

**4,3**

MILIOI EURO

Atez ateko zabor bilketa eta zerbitzu osagarriak -industrietako eta komertzioetako batzuek, e.a.- 4,3 milioi kostatuko lirateke lehenengo urtean.

**%40**

OBARIA

Proposatzen da autokonpostajea egiten dutenei zabor-tasekiko bonifikazioa ematea; txostenak proposatzen duenez, %40koa.

**%60**

BIRZIKLATU

Ingurumen batzordearen datuen arabera, atez ateko sistemaren bidez sortzen diren hondakin %60 birziklatzen da, gutxienez; edukiontziekin, gehienez, %40.

kartoia batzea. Horrenbestez, 4,3 milioi euro izango litzateke atez atekoa eta zerbitzu osagarri horiek, gaur egungo zabor-tasekin batzen dena baino 145.000 euro garestiagoa (edukiontzi sistema 4.050.000 euro kostatzen da).

**KONTZIENTZIATU EGITEN DU**

Horiek guztiak proposamenak dira, eta orain Mankomunitatearen eginbeharra da horiek mamitzea. Atez ateko sistema aurrera eramaten bada -eta badi-rudi Mankomunitatea hortik doala modu erabakigarrian-, txostenak proposatzen du komunikazio kanpaina bat martxan jartzea, atez ateko sistemaz informatzeko eta autokonpostajea orain baino gehiago bultzatzeko.

Mankomunitateko Ingurumen batzordeburuak hauxe dio: "Orain, txostenak esaten duena ondo aztertu behar du Mankomunitateak; berak kudeatzen ditu bailarako zabor ia guztiak, eta bera da protagonista. Gero, erabakiak hartzen joango gara, eta ezin dira egun batetik bestera hartu, baina batzordeko kide gehienok argi daukagu sistema hau dela onena". Bere esanetan, bir-

Pedro Lasagabaster > Mankomunitateko Ingurumen batzordeburua

**"Usurbilen asko politizatu da gaia, baina ez dut uste hemen horrelakorik gertatuko denik"**

L.K. > ESKORIATZA

**Pedro Lasagabaster Ingurumen batzordeburuaren esanetan, eredu iraunkor bat jarraitu nahi badugu, atez ateko bilketa da bidea.**

Txostenak dio eredu interesgarria dela atez ateko bilketa.

Ekonomikoki interesgarria, eta gero eta interesgarriagoa; baliabideak ez dira betiko. Dena dela, atez ateko bilketa ez da helburu bat, bidea baizik: helburua da jendarte eta ekonomia iraunkorrak izan daitezela. Eta txostenak esaten duen beste gauza bat da politikarienta eta teknikarienta inplikazioa ezinbestekoa dela.

Zer diozu errauskailuaren asmoz? Eta bosgarren edukiontziaz?

Errauskailua ez da batere eraginkorra. Hondakinak erre egiten dira, ez dago ziklorik. Gainera, erreta ere, beste hondakin bat sortzen da, eta horrekin zer egingo da? Beste zabortegi bat?

Bosgarren edukiontzia, nire iritiz, makillaje hutsa da. Konbentzituratuta dagoen jendeak bakarrik erabiltzen du. Eta, bestalde, emaitzak hor daude: zazpi bider gutxiago birziklatzen da horren bidez, atez ateko bilketa sistemaz baino.

Atez atekoa ezartzen bada, iraultza bat izango da, ezta?

Bai, sistema bera iraultza bat da. Edukiontziak kaletik kentzen dira. Erabakiak hartzen hasiko gara, nik uste, hilabete pare baten. Dena dela, edukiontziak ez ditugu egun batetik bestera eta dekretuz kenduko.

ziklatze maila altuak lortzeaz gain -Usurbilen, batzen denaren %60-80 artean birziklatzen da-, sistema horrek kontzientziazeko balio du: "Orain edukiontziak daukagu, eta badirudi hor zaborra desagertu egiten dela, baina ez da horrela. Atez ateko sistemarekin, egun bakoitzean hondakin mota bat bakarrik atera daiteke, eta horrela, norbera konturatu egiten da zaborraren arazoaz, eta zabor gutxiago sortzen du". Izan ere, txostenak dioten arabera,



GOIENKARIA

Galdeketa egitea pentsatzen duzue?

Ez, ez du inongo zentzurik. Galdeketa bat planteatzen bada, jendeak argazki osoa duenean izan beharko da: zaborraren arazoa, errauskailua, zabortegiak... Horrekin lotuta, nik uste dut Usurbilen gertatu dena oso politizatuta egon dela. Interes

ekonomiko handiak daude errauskailuaren atzean: 400.000.000 euroko proiektua da. Katalunian, alde politiko guztiak daude atez ateko bilketaren atzean, eta nik uste dut hemen ere ez dela politizaziorik egongo.

**Autokonpostajeari garrantzi handia ematen diote egileek...**

Bai. Materia organikoa norberak birziklatuz gero, zabor poltsaren pisu erdia kentzen da. Hemen potentzial handia dugu horretarako, eta serio eutsi behar diogu kontu horri.

**Politika fiskala aldatzea ere proposatzen da. Zer diozu?**

Europako Batasunak jasota dauka gehiago kutsatzen duenak gehiago ordaindu beharko lukeela. Argi dago gutxiago sortzen duenak hobaria merezi duela. Hori autokonpostajearekin lotuta dago.

**"Katalunian, alderdi politiko guztiak daude atez ateko bilketaren atzetik"**

**"Autokonpostajerako potentzial handia dugu hemen, eta horri serio heldu behar diogu"**

edukiontzien bidez birziklatzen da -%20-40 artean, Lasagabasterrek dioenez-, baina denetara gero eta hondakin gehiago ere sortzen da.

**USURBILLEN GEHIAGO BATU ZEN**

Eredu horren parez pare dago Foru Aldundiak, Gipuzkoako Hondakin Partzuergoaren bidez bultzatzen diharduena: hondakin organikoendako edukiontzia, tartean Aretxabaletan dagoena eta Partzuergoak Gipuzkoa

osora zabaltu gura duena. Lasagabasterren esanetan, horrek ez ditu birziklatze helburuak betetzen: Diputazioaren beraren datuen arabera, joan den azaroran Usurbilen hondakin organiko gehiago batu zen edukiontzi hori duten herri guztiak batera hartuta baino. Gaineratzen duenez, "ezin daiteke jendea behartu edukiontzia erabiltzera". Aldundiak mankomunitate bakoitzaren esku uzten du bere zabor kudeaketa eredu finkatzea.




GOIENKARIA

da atez ateko bilketa "bideragarria eta oso interesgarria" dela.

Azkenik, sistemaren diseinu hipotetiko bat eta guzti proposatzen dute, eta finantzaketa plan hipotetiko bat egin ere bai. Aurrekontu horren arabera, hiru milioiko kostu garbia izango luke etxebizitzetako atez ateko bilketak lehenengo urtean (48,55 euro biztanleko), baina horri gehitzen dizkiote zerbitzu osagarri batzuk: industriaguneetako edukiontziak batzea eta pilak, bolumen handiko elementuak, eta komertzio eta industrietako papera eta

Ezkontzak  
Estudixuak  
Jaunartziak  
Umien Argazkixak  
Enpresakuak  
Kintadak  
Kamarak  
Materiala



**JUANJE** Argazkidenda

**urteko esperientziaz jarraituz**


oain toki berri honetan naukazu, zuen zerbitzura:

Domingo Irala 5 (Ariznoako kalia)

20570 BERGARA Tel.: 943 08 18 53 Mug.: 635 20 81 46

Argazki digitalak momentuan

**H** Hofmann album digitaleko kodigua: 340392



AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HANDIKO TRENA

# Mendi martxa, kalejira eta herri bazkaria etzi AHTren aurka

'Lurra, herrien etorkizuna: AHT gelditu!' lelo, Arrasate eta Aramaio artean egingo dute martxa

AHTk eragindako kalteak bertatik bertara ikusi ostean, jai giroan sartuko da martxa Arrasaten

JOKIN BEREZIARTUA &gt; ARRASATE

*Lurra, herrien etorkizuna: AHT gelditu!* lelopean, aldarrikapen eguna deitu du domekarako AHT Gelditu! Elkarlanak: hiru orduko mendi martxa samurra, kalejira eta herri bazkaria egingo dituzte. 09:30ean Arrasateko Markulete industrialdetik abiatuta, Suñara joango dira eta han Asier Agirre Aramaioko alkateak, EHNE sindikatuko kide batek eta Gesalibar auzoko lurjabe batek obren gaineko azalpenak emango dituzte.

Handik Untzilla aldera abiatuko dira, errekararen bailaratik behera, bertan Aramaio bidea itxi duen lur-jausia ikusteko. Horren harira, Aramaio Udalak jakinarazi du zapatu eta domekan Zabola-Untzilla bideko



AHT Gelditu! Elkarlanak martitzenean Arrasaten egindako prentsurrekoa, Kultureko areto nagusian.

ANDER MONEDERO

egokitzapen lanak direla-eta bidea itxita egongo dela 08:00etatik 19:30era. Beraz, aramioarrak Arrasatera joan edo Aramaiora itzultzeko Legutiotik joan beharko dute.

## KALEJIRA ETA HERRI BAZKARIA

Obrak bertatik bertara ikusi ostean, kalejiran sartuko dira Arrasatera. Gero, herri bazkaria egingo dute Biteri plazan, eta arratsal-

dean jolasak eta ikuskizunak egongo dira. Hau da, jai giroan amaituko dute eguna.

## LAMIATEGI, ADIF-EKOEN ZAIN

Bestalde, Bergarako ibilbidea aldatzeko eskaerari Jaurlaritzaren ezezkoa jaso ostean, Lamiategi elkarteak lanean jarraitzen du biztanleei begira trena ahalik eta gutxien ikus eta entzun dadin: "ADIFeko teknikari batekin bil-

tzeko zain gaude, trazatua apur bat hegoaldera ekartzeko aukera dagoelako", dio Luis Fernando Mendibil elkarteko kideak. Lamiategikoek gura dute tunel artifizialak jartzea-lau tunel onartu ditu ADIFek- eta "ganorazko" pantaila begetalak jartzea. Izan ere, Mendibilen ustez, 10 edo 15 metroko zuhaitzak behar dira, gutxienez, trenaren zarata eguneroko oztopo ez bihurtzeko.

OGASUNA &gt; ERRENTA AITORPENA

# Hasi da kanpaina: Gipuzkoako Ogasunak 379 milioi euro itzultzea aurreikusten du

Aitorpena maiatzaren 7ra arte egin daiteke autolikidazio bidez; aurten 211.000 proposamen bidali dira Gipuzkoan, eta urtez urte gehiago dira

Eta txanda Internetez, telefonoz edo Bergarako bulegoan bertan eska daiteke. Azkenik, Internetez ere egin daiteke errenta aitorpe-

na: Ogasunaren webgunetik programa jaitsi, datuak bete eta bidali besterik ez da egin behar, etxeko erosotasunean.

J.B. &gt; BERGARA

Martitzenean, apirilak 20, abiarazi zuen Gipuzkoako Ogasunak 2009ko errenta aitorpen kanpaina. Ekainaren 25era arte iraungo du eta gipuzkoarrei 379 milioi euro inguru itzultzea aurreikusten dute. Horietatik asko debagoiendarrak izango dira. Ogasunak Bergaran duen egoitzan diharduen Miren Pozuetak jakinarazi du autolikidaziorako 211.000 proposamen bidali direla, eta horietatik 50.000 inguru onartu direla: "Ideia da urtez urte etxera proposamen gehiago bidaltzea". Hala, proposamena jaso eta oraindik onartu ez dute-

nek maiatzaren 7ra arte izango dute horretarako aukera; telefonoz edo Internetez egin daiteke (ondoko taulan ikusgai), eta Ogasunak itzuli behar badu, bi edo hiru egunean egingo du ordainketa. Alderantziz bada, herritarrek ekainaren 30a baino lehen ordaindu beharko du.

## AITORPEN BAT, TXANDA BAT

Bestalde, aitorpen mekanizatua egin gura duenak txanda eskatu beharko du aurretik Bergarako bulegoan. Pozuetak adierazi du aitorpen bakoitzeko txanda bana eskatu behar dela. Hitzordu eskaera ekainaren 11n amaitzen da.

## 2009ko errenta kanpaina

### EPEAK

> Kanpaina: apirilaren 20tik ekainaren 25era arte  
> Aitorpen mekanizaturako hitzordu eskaera: apirilaren 19tik ekainaren 11ra

> Autolikidazio proposamena onartzea: maiatzaren 7ra arte

### ONARPENAK

> Telefonoz: 902 100 040 edo 943 01 65 23 8:00etatik 20:00etara

> Internetez:

[www.gipuzkoa.net/ogasuna](http://www.gipuzkoa.net/ogasuna)



## HAURREI MASAJEA EMATEN IRAKASTEKO IKASTAROA

0-1 urteko haurrak dituzten gurasoendako

**ANTOLATZAILEA**  
MUGI, Psikomotritzitate, Prebentzio eta Laguntza Zentroa

**TOKIA**  
Araba etorbidea 3  
2-3.atea

**EGUNAK**  
Maiatzak 5, 12, 19 eta 26.

**ORDUA**  
10:30etik 12:00etara.

**INFORMAZIOA**  
MUGI ZENTROAN  
943 77 08 05  
ARRASATE

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO
- INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO

&gt; KOMUNIKABIDEAK

## Asteon Elgetara ere egin du salto Goiena Telebistak

Elgetara ere heldu da Goiena Telebistaren seinale digitala. Azken egunotan teknikoak horretarako beharrezkoak diren moldaketak egin dituzte, eta Lurreko Telebista Digitala ikusteko 52. kanalean aurkituko dute ikusleek. Sintonizazio probak egin eta aurkitzeko zailtasunak izanez gero, tekniko batekin jarri behar da harremanetan, antenan beharrezko egokitzapenak egin eta arazoa konpon dezan. Edozein zailtza argitzeko, [www.goiena.net](http://www.goiena.net)-en horretarako atal berezia dago.

&gt; ETXEBIZITZA

## Apirilaren 30ean, biharko etxebizitzaren gaineko jardunaldiak

Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak antolatuta, hilaren 30ean XXI. mendeko etxebizitzaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte Arrasateko Garaia berrikuntza gunean. Batez ere eraikuntza eta ingeniari enpresei, arkitekturen bulegoiei, udal teknikariei eta mankomunitateko teknikariei zuzenduta, goizean hainbat hitzaldi egingo dituzte.

Gainera, jardunaldien aretoan Ekokaleak hiri altzarien bigarren ideia lehiaketaren lanak erakusgai egongo dira.

&gt; BERDINTASUNA

## Arcelor-Mittal taldea erakunde laguntzaile, Emakunderen eskutik

Emakunderen berdintasunaren aldeko erakunde laguntzaile izendatu zuen martitzenean Bergarako Arcelor-Mittal taldeari. Hala, 1994tik hona 45 dira Emakunderen eskutik Lankidetzaren Erakunde bereizgarria jaso duten erakundeak, Bergarako enpresa barne.

Bereizgarri horren helburua da erakunde horietan emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egin duten lana aitortzea.

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

# Motorzaleendako pantailak Arlaban eta Arrasate artean

Gipuzkoako Diputazioak 321.000 euro gorde ditu GI-627 errepidean segurtasuna handitzeko; proiektua enkantera aterata dago

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak 321.000 euro bideratzeko asmoa du datozen hilabeteotan Arlaban eta Arrasate artean, GI-627 errepidean, motorzaleendako babes bereziko elementuak jartzeko. Diputazioak asteon onartu egin du bide zati horren trazatuari

begiratuta segurtasuna hobetzeko ekimen hori enkantera ateratzea.

Proiektu horren bidez, ia bost kilometro luze diren pantailak jarriko dira; hain justu ere, 4.889 metro. Babes neurriak 18,270 kilometro-puntutik (Arlabango mendatea) 34,085 kilometro-puntura (Arrasateko saihesbidea) jarriko dituzte, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko udalerrietan sakabanatuta dauden 40 puntutan.

**BABES HANDIAGOKO TOKIETAN**

Diputaziotik jakinarazi dutenez, pantailak jarriko dituzte trazatua edo bihurguneen erradio handia dela-eta, motorzaleendako babes

handiagoa behar dela uste duten tokietan.

Esan bezala, dagoeneko enkantera atera du proiektua, eta, lanak esleitu ostean, horren ardura izango duen enpresak hiru hilabete izango ditu obra horiek egiteko.

**GIPUZKOAN, 60.000 METRO**

Aldundiaren arabera, jarduera horrekin bide segurtasuna handitu egingo da, Gipuzkoako bide sarearen errepide nagusietako 60.000 metro linealetan egongo dira-eta motorzaleendako segurtasun pantailak. Besteak beste, AP-8, N-I, N-I-A, N-634, GI-631 eta GI-632 errepideetan izango dira babes neurri horiek.



GOIENKARIA

## 50. urteurreneko ospakizunak hasi ditu Enpresagintza fakultateak

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako fakultateko dekanok Lander Belokik eta MIKeko zuzendari Aitor Urtzelaiak agerraldia egin zuten atzo, fakultatearen 50. urteurrenaren harira. Ospakizunetara dagokionez, azaldu zuten gaur krosa, bazkaria eta kontzertua egingo dituztela, eta gogorarazi zuten, ospakizunak urte osoan izango direla. Fakultatearen ibilbidearen gainean aipatu zuten urte hauetan guztietan 20.000 ikasletik gora igaro direla Oñatitik eta % 96 izan dela, batez beste, haien laneratze-indizea.

AISIALDIA > ELIZA

# Bizi Alaik Txirrin Txarran festa egingo du asteburuan Bergaran

Zapatuan prestaketa lanak egingo dituzte eta jaialdia domekan izango da

M.B. > BERGARA

Donostiako elizbarrutiko aisialdi taldeen federazioak Txirrin Txarran festa ospatuko du domekan Bergaran. Aurtengo jaialdirako aukeratu duten leloa *Aldatu burua, aldatu mundua* da, eta

gaia aldaketa klimatikoa izango da. Federazioko talde guztietako 400 haur eta gazte, begirale eta gurasok parte hartuko dutela aurreikusitako dute.

Jaia zapatuan hasiko da, gazte eta zenbait begiraleren prestaketa lanekin. Hala, kaleak eta inguruak atondu eta kolorez beteko dituzte, Txirrin Txarran eta federazioko irudiekin. Santa Marina parrokiaren etxean elkarrekin afaldu ostean, aldaketa klimatikoaz jardungo dute eta karaokea egingo dute.

**DOMEKA, EKINTZAZ BETETA**

Domekan 10:15ean hasiko da jaialdia, harrerarekin. Jarraian, herriko plazaren inguruko kaleetan lau tailer egingo dituzte. Horrez gain, gune berezi bat gertatuko dute 15 eta 17 urte bitarteko gazteendako. Risk jolas erraldoia egingo dute han. 13:00etan, elizkizuna izango dute Santa Marina elizan, Juan Kruz Mendizabalen eskutik. Mariaren Lagundia ikastetxean bazkaldu ostean, talde bakoitzak ikuskizun txiki bat egingo du.

etxeko leihotik



Monika Belastegi > 'mbelastegi@goiena.com'

## Zaborra kudeatzeko eredu berria ate joka

Zaborren kudeaketa arazo larri ari da bihurtzen gure gizartean. Azkeneko urteetan hondakinak pilatzen joan gara zaborregietan, kontrol gutxiarekin, eta horrek ingurumenean arazoak eragin ditu. Zaborrak kudeatzeko eredu berri bat beharrezkoa da; gaur egun daukaguna agortuta dago, eta agintariek badihardute horren aurrean neurriak hartzen.

Europar barrena, esaterako, ari dira dagoeneko zabor kudeaketa eredu desberdinak garatzen, Belgikan, Italian... eta gurean hasi dira eredu berriok garatzen.

Debagoienari dagokionez, hona ere heldu da zaborren gainean erabaki bat hartzeko ordua, eta mahai gainean proposamen eta eredu desberdin bi daude nagusiki: edukiontzi sistemarekin jarraituz bosgarrena jartzea, hau da, hondakin organikoak batzeko edukiontzia; edo edukiontziez ahaztu eta atez ateko batze zerbitzua ezartzea.

Alde bateko zein besteko ereduak aztertu ondoren, Mankomunitateak laster hartuko du erabaki bat gai garrantzitsu horren gainean. Erabakia, seguruenik, ez da guztion gustukoa izango, baina herritarren iritzia eta parte-hartzea bermatuz hartzen bada, aurrera egiteko beharrezkoa den legitimitatea izango du. Hori hala izan dadin, ereduok ondo azaltzeko komunikazio kanpaina ona egin beharko dute.

**"Debagoienara ere iritsi da zaborrari buruzko erabakia hartzeko garaia"**

**> Bergarako Jardun elkarteak 20 urte betetzen ditu aurten, eta ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte biharko, zapatua. Herritarrekin ospatuko dute urtemuga eta gonbita aintzat hartuta, han izango naiz ni ere. Zorionak elkarteari.**

**> Beste urtemuga bat ere ospatuko dugu 2010ean barrena; Goienaren 10. urtemuga. Jardun elkarteak dituen urteen erdiak ditu eta hari eta bailarako beste euskara elkarrekin zor die sortu izana, eurak izan ziren eta bultzatzaile nagusiak.**



Antolatzaileek aurkezpena egin zuten eguaztenean Bergarako udaletxean.



# Carrefour GORBEIA

2. unitatea  
**-%70** ean



**EL MOLINO DE BERTÍN**  
Oliba-olio birjina estra  
Litro 1

Botila 1 erosituta  
**3,50€**

2. unitatea  
**-%70** ean

**1,05€**



**TRES REINOS** jatorri-izen  
kalifikatua duen Errioxako ardoa  
75 cl

Botila 1 erosituta  
**2,50€**

2. unitatea  
**-%70** ean

**0,75€**

**LOZOYA**  
Erreserbako serrano  
urdaiazpikoa  
Urrezko etiketa  
Piezak 6,5 Kg gutxi gora behera

Pieza 1  
erosita  
**59€**  
Kiloa 9,08€  
gutxi gora behera

2. unitatea  
**-%70** ean

**17,70€**

Kiloa 2,72€ gutxi gora behera

(Urdaiazpiko-ohola  
ez dago barne)



Nahi duzun moduan  
konbinatu

Uretako zuekoak,  
emakume, gizon edo  
haurrentzat

Unitate  
1 erosituta  
**8,90€**

2. unitatea  
**-%70** ean

**2,67€**

**Etorri DOAN**  
**Carrefour-era**  
AP-1 autobideko bidesaria  
ordainduko dizugu  
60€-tik gorako  
erosketagatik

**DODOT Activity**

Pixoihal kaxa

4-10 Kg 108 unitateko packa (1),  
9-15 Kg 96 unitateko packa (2) edo  
13-18 Kg 80 unitateko packa (3)

2. unitatea  
**-%70** ean

Pack 1 erosituta  
**24,65€**

(1) Pixoihala 0,23€  
(2) Pixoihala 0,26€  
(3) Pixoihala 0,31€

**7,40€**

(1) Pixoihala 0,07€  
(2) Pixoihala 0,08€  
(3) Pixoihala 0,09€



Nahi duzun moduan  
konbinatu

Apirilaren 22tik maiatzaren 12ra

**Eman bizitza  
zure lorategiari**

Akazia egurrezko 6 piezako jokoia +  
**Carrefour Home** kuxinak

Honako hauek ditu:

- 2 plazako sofa 130x76x86 cm
- 2 besaulki 70x76x86 cm
- Oin-aulkia 70x51x40 cm
- Mahai karratua 51x51x56 cm
- Mahai lauki luzea 61x101x46 cm

**359€**

Prezio hauek Carrefour GORBEI Arako bakarrik balio dute

Laster  
zure hipermerkatua 24 orduz zabalik  
[www.carrefour.es](http://www.carrefour.es) webgunean  
Baita Arrasate, Eskoriatza,  
Aretxabaleta eta Aramaion ere.  
Maiatzaren 5a arte

Itxaropentsu dago Lander Beloki Oñatiko Enpresagintzako dekanoa, campus berria dela-eta.

Oñatiko betiko ETEOk 50 urte betetzen dituela-eta, urrezko ezteiak ospatzeko opari ederra

da. "Urte askotako lanaren fruitua izango da. Oñatin kokapen duin baten bila genbiltzan eta

campus berriarekin lortuko dugu", dio. 8.700 metro koadro izango ditu, hiru solairutan.

Lander Beloki > Enpresagintza Fakultateko dekanoa

# "Enpresa eta erakundeetatik oso gertu dagoen fakultatea da gurea"

ENEKO AZKARATE > OÑATI

**MUKO Enpresagintza Fakultatekoak buru-belarri dabilta 50 urteurrenko ospakizunetan murgilduta. Oraingo astean eman diete hasiera ospakizunei eta gaur dute festa eguna Oñatiko fakultatean. Liburua argitaratuko dute irailean, eta, garrantzitsuena, campus berriarekin hasiko dute datorren ikasturtea. Lander Beloki dekanoa dakarzkigu xehetasunak.**

**Hasi zarete ospakizunekin, ezta?**

Bai, berbaldi zikloa hasi dugu oraingo astean bertan Bidasoko eta Oñatiko campusetan. Aurrerago etorriko dira besteak. Guztira, zortzi hitzaldi dira, arlo askotarikoak: enpresaren, kudeaketaren, kooperatibismoaren, kirolaren... inguruan. Eta, gaur bertan, egubakoitzean, lore festa ospatuko dugu Oñatin. Egunean barrena hainbat ekitaldi izango da, herri bazkaria ere bai, eta gauean rock kontzertua Potemkin, Malenkonía eta We Are Standard taldeekin. Irakasle, langile eta ikasleok elkarrekin ospatzeko eguna izango da.

**Eta liburua?**

Irailerako-edo aurkeztu nahi dugu. Jose Antonio Azpiazu historialariak idatzi du. ETEOk irakasle izan zen urte askoan. Azken 50 urteotako kronologia moduko bat egin du, urtez urteko gertaera nagusiak nabarmenduz. Liburua bukatzean du.

**ETEO izena hartu zuen orain dela 50 urte zuen fakultateak. Enpresa Zientzien Fakultatea izan zen gero eta orain Enpresagintza. Zergatik aldaketok?**

Ia sorreratik ETEO moduan ezagutu izan gaituzte. Edozelan ere, 1997an Mondragon Unibertsitate sortu zenean, eman zen aldaketa garrantzitsua. ETEOk Lanbide Heziketaren arloan zeukan izena eta Enpresa Zientzien Fakultatea sortu zen MÜren sorrerarekin batera. Orain, ostera, Enpresagintza izena jarri diogu, hainbat kontu elkartzen direlako: tokiz aldatzera goaz, MIK ikertegiarekin elkartze prozesu bat ireki dugu eta ekintzailetasunaren arloan garapen berezia izaten ari gara azken urteotan. Hori guztia kontuan hartuta, iruditu zitzaigun aldaketa hauek ondoen definitzen zuten berba zela Enpresagintza.

**Gaur egun non dituzue campusak?**

Bi campus ditugu: Oñatiko da historikoa, betikoa; bestea, Iruñen, Bidasoakoa. Garapen oso interesgarria egiten gabiltza Bidasoan, hemengo eredu hara eranda: unibertsitatea oso errotuta dago inguruarekin, herriarekin, erakundeekin eta enpresekin.

**Oñatiko campus berria noizko egongo da?**

Asmoa da ekainean amaitu, udan lekualdaketa egin eta irailean 2010-2011 ikasturtea campus berrian hastea. Urte askoko lanaren fruitua izango da. Oñatin kokapen duin baten bila genbiltzan eta campus berriarekin lortu egingo dugu. Unibertsitateko jarduera guztiak, hau da, gradu maila, gradu ondokoak, masterrak, ikerketa, nazioartera zabaltzea... hori guztia garatzeko beharrezkoa zen campus berria.

**Zelakoa izango da?**

Eraikin singularra izango da. Batez ere nahi izan dugu gure jarduerarendako toki egokia izatea. Azkeneko urteotan, hezkuntzaren munduan aldaketa handiak egon dira. Europara egokitua gara. Metodologietan nabarmena izan da aldaketa eta gelen konfigurazioaren aldetik ere beste modu batera egiten gabiltza gauzak. Bestalde, argi naturala oso ondo erabiltzen da eta horrek ematen dio tokiari patxada, erosotasuna, ikasteko eta ikertzeko.

**Ze azalera izango du eraikinak?**

8.700 metro koadro, hiru solairutan banatuta. Lau espazio berezitu dira: gelak eta gradu mailako ikasleendako guneak hartuko ditu bi solairu erdi; bestetik, etengabeko formazioa eta masterrak; hirugarren espazioa izango da ikerketakoa. Eta, azkeneko gunean, denondako espazio komuna: liburutegi ederra, ikasleendako gelak eta bestelako zerbitzuak...

**Zer eskainiko du Enpresagintzak beste enpresa ikasketen unibertsitateek eskaintzen ez dutena?**

Gure fakultatea Mondragon Unibertsitatearen hanketako bat da, eta, hori horrela, MÜren ezaugarriak dauzka: formazioa eta ikerketa oso lotua daude jendarte, erakunde eta enpresen beharrei. Formazioari eta ikerketari garrantzi berezia ematen diogu. Gure kasuan, kudeaketaren arloari dagokionez. Enpresa eta erakundetik oso gertu dagoen fakultatea da gurea.



Lander Beloki, Goiena Tebistan, martitzenean.

ENEKO AZKARATE

ESKUALDEAREN BERRI

**"Unibertsitateak, neurri baten, bailara honetako errealitatea ezagutzera ematen du"**

IKASLEAK

**"50 urteotan, gure geletatik 20.000 ikasle pasatu dira, eta formazio modu ezberdina jaso"**

**Zenbat ikasle eta irakasle ditu zuen fakultateak?**

Guztira, ia 700 ikasle unibertsitate mailan eta beste 80 ikasle, heziketa ziklo mailan, bi campusak kontuan hartuta. Irakasle eta langileak dira, guztira, 90 bat. Guk nahi dugu ikasle kopurua hazten joatea. Gainera, kontuan izan behar da etengabeko formazioa ere eskaintzen dugula eta urtean 1.000 bat lagun pasatzen direla bertatik.

**Campus berriak aukera emanago dizue hazten joateko?**

Bai. Datorren ikasturtean, esaterako, gardu berria eskainiko dugu Oñatin: Enpresaren Administrazio eta Zuzendaritzako gradua, Europara egokitua, Euskal Herrian gisa honetako lehena. Hori bi campusetan jarriko dugu. Bestalde, Oñatin jarriko dugu beste bat: Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzako gradua. Ekintzailetasunera bideratutako gradua, berria; Espainian ere ez da halakorik.

**Nondik datozkizue ikasleak?**

Heren bat ibar honetako da; beste heren bat, Gipuzkoako gainerako eskualdeetako; eta hirugarrena, Euskal Herriko beste toki batzuetako. Unibertsitateko ikasketak egitera bertara datoz, Debagoienara, hiriburua batera joan beharrean. Unibertsitateak oihartzun modura funtzionatzen du bailara honetako errealitatea ezagutzera emateko.

**ETEOk 50 urteotan gure ibarrari egin dion ekarpen nagusia zein da?**

Hiriburutik kanpo dagoen unibertsitate bakarra da gurea. Hainbat ikasle, irakasle, profesional... etortzen da kanpotik hona. Eta dinamika bat sortzen du bestela sortuko ez lukeena. Unibertsitatea bailara honetan egoteaz gain, erabaki gunea, errektoretza, hemen da. Bestalde, 50 urteotan, gure geletatik 20.000 ikasle pasatu dira, formazio mota ezberdina jaso dutelarik. Horietatik, gehienak, gure baitatik kanpoak. Azkenik, balio handia dauka, ikerketa alorrean, bailaran bertan gestio alorreko ikertegia edukitzea, nazioarte mailan lanean diharduena, enpresa eta erakundeekin elkarlanean.

**Zer da MIK edo Kudeaketarako Ikerketa Zentroa?**

MIK ikertegia korporazioaren itzalean garatu da, baina, era berean, unibertsitateko proiektu propioa zeukan, beti ere kudeaketari lotua. Orain, hainbat eragile ados jarri gara eta gure fakultatean garatuko da MIK ikertegia. Helburua da lau urteko epean 45 ikerlari bertatik pasatzea eta ikerketa horiek izan daitezela gure unibertsitatearen ezaugarriekin koherentea, hau da, ikeretzen diren proiektuak bideragarri izan daitezela jendarte, enpresa eta erakundeendako.

[goiena.net/bideoak](http://goiena.net/bideoak)

Elkarriketa osoa, webgunean.



# Herriak

Arrasate > 10-13 Bergara > 14-17 Oñati > 18-19 Aretxabaleta > 20-21 Eskoriatza > 25 Antzuola > 26 Aramaio > 27 Elgeta > 28 Gatzaga > 28



> **ARRASATE**  
Zerrajerako 140 etxebizitzak egin egingo dira, 2011n hasita > **10**



> **OÑATI**  
Udarako gertu egongo da Lizarragako bidegorria > **18**



> **ARAMAIO**  
Aste bukaera osoan itxita egongo da bide alternatiboa > **27**



> **ELGETA**  
Gerrako biktimak omenduko dituzte, Intxortako frontea gogoan hartuta > **28**



Domekan abestuko duten Pertxako bazkideak, entseguan.

LEIRE KORTABARRIA

**BERGARA > JENDARTEA**

## Pertxarekiko eta Errioxarekiko maitasuna abestuko dute 20 lagunek

### EMANALDIA

Domekan, bandarekin jendaurrean kantatuko dute Pertxako bazkide batzuek

### IRTEERAK

65-75 urte arteko gizonak dira, urtero Errioxara upategira joaten direnak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Errioxako upategiak, hango giroa eta jateko eta edateko ederrak ia ia euren Pertxa elkarte adina maite dituen bergarar talde bat badago. Ez dira koadrila berekoak, baina bi pasio horiek lotzen dituzte guztiok; eta, denbora librean bakarrik ez: oraingo domekan, agertokian eta kantuan ere batu-ko dituzte. Izan ere, Pertxako 20 bat bazkide, 65-75 urte artekoak, pilotalekuan jendaurrean izango dira etzi, domeka, 12:30ean, Bergarako udal musika bandarekin batera eurek idatzitako abesti bat kantatzeko: *Errioxara* izeneko euskal martxa.

#### "PERTXAK BATZEN GAITU"

Taldeko kide Pedro Garitanok kontatzen digu nola sortu zen ekimena: "Urtero, ekainean Errioxara joaten gara, Guardia-

ra-eta. Iazko irteera egin genuenean, Alfredo Gonzalez Chirlaquek -hura ere joaten da- esan zigun hurrengo urtean musika-erkin joan beharko genuela; biribilketa bat, eta guk idatzi beharko genuela letra".

Garitanok azaltzen digun moduan, "denetarikoa jendea" batu da aldi baterako abesbatza horretan: "Herrian, lagunarte desberdinetakoak gara, baina Pertxak batzen gaitu denok".

#### BAKAILAOA ETA ARKUMEA

Abestian, Errioxako upategien ontasunak goraiatzeko dituzte -*makaillau goxo, arkume iztarra*, diote bertso baten, eta *ardo beltzarekin gustora betetzen gara*, onartzen dute beste baten- eta hara bueltatzeko asmoa agertzen dute -*berriro goaz Errioxako bodegetara*-; hori dena, herriko

Pertxa elkarte maitea ahaztu barik, jakina -*Masterreka da gure kalea, eta Pertxa, paradisua*, diote abestiaren hasieran-. Abestiak Bergarako hizkerako berba eta esaldien biziera ere erakusten du: hala, *Masterrekan mortalak jaeztak, mortalak jaeztak*, diote euren buruaz. Abestia martxa bat da, 6x8 konpasean egingo da; Pedro Garitanoren hitzetan, "oso martxosoa", eurak bezalaxe.

#### LASAI ETA UMORETSU

Joan den eguaztenean batu ziren entseatzeko, eta kontzertu aurretik bandarekin entseatzeko dute. Ez dute esperientziarik jendaurreko emanaldietan, baina lasai daude: "Abestia ez da nekeza eta bandaren laguntasuna daukagu. Bestela ere, edade batekoak gara eta narrua eginga daukagu", esaten digu Garitanok, umoretsu.

HITZAK

### 'Errioxara'

*Masterreka da gure kalea, eta Pertxa paradisua, horregaitik esaten dogu, Masterrekan mortalak jaeztak, mortalak jaeztak. Aspaldikoak gara, larala laralala eta nahiz Pertxa izan gure amore bakarra, ekainero joaten gara Errioxako bodegetara, bodegetara. Bodegetara, bodegetara, makaillau goxo, arkume iztarra, bodegetara, bodegetara, ardoa beltzarekin gustora betetzen gara. Askatzun, askatzun, urteko kortesi bisita, askatzun, askatzun beti lehun, beti lehun askatzun askatzun urteko kortesi bisita, askatzun, askatzun, baina Pertxan, milla ta ehun. Bodegetara, bodegetara...*

HIRIGINTZA &gt; VISESAKO PROMOZIOAK

# Errenta sozialeko beste 140 etxebizitza Zerrajeran

Urtarrilean hasiko dute obra eta asmoa da bi urtean bukatzea; 14.080.000 euro da inbertsioa

UBABE MADERA &gt; ARRASATE

Urtebeteko atzerapenarekin (2010ean hasteko asmoa zuten), baina badirudi Eusko Jaurlaritzak eraiki egingo dituela Zerrajera gunerako planifikatutako babes ofizialeko 140 etxebizitzak.

Visesak gauzatuko du proiektu hori. Aitor Lamaraianok, Visesako prentsa arduradunak emandako xehetasunen arabera, datorren uztailean abiaraziko dute lizitaziorako lehiaketa publikoa.

Obrak, berriz, urtarrilean hasiko dituzte (2011n), bi urtean guztia bukatuta izateko helburuarekin. 14.080.000 euroko inbertsioa egingo dute. Eta beste bost milioi euro pasa inbertitu ditu Jaurlaritzak Zerrajerako lursail zati hori Arrasateko Udalarari erosteko.

Anbulatorioaren atzeko aldean eraiki behar dituzte etxeok, eta dagoeneko urbanizazio guztia gertu dago; besteak beste, urtetan Zerrajera lantegiarenak izan diren lurren kutsadura garbitu egin behar izan dute.

HANDIENEK, HIRU LOGELA

Alokairu sozialean merkaturatzeko etxebizitzak dira Jaurlaritzak eraikiko dituenak. Ezagunak honako hauek izango dira: bi logeladun 90 etxebizitza, 60-65 metro karratukoak; hiru logeladun 36 etxebizitza, 75 metro karratukoak; eta gela bakarreko 14 etxebizitza, 45-50 metro karratukoak. "Etxebizitza guztiek izango dituzte garajea eta trastelekua", zehaztu du Visesako ordezkariak.



Anbulatorioaren atzeko aldean eraikiko ditu Jaurlaritzak etxebizitza berriak.

IMANOL SORIANO

ETXEBIDEN, LEHENBAILEHEN

Etxebizitza horietakoren bat eskuratzeko Etxebiden eman behar da izena. Ahalik eta lasterrren hobe, gainera, izena emanda dutenen antzinakotasunak lehentasuna ematen dielako etxebizitzaren zozketan.

Era berean, lehentasuna izango dute, baita ere, Etxebiden izena ematerakoan finkatu dutenek etxebizitza Arrasaten eskuratu gurako luketela.

Etxebizitza horien errentaren prezioari dagokienez, berriz, "maizterren gehienezko dirusarreraren arabera eta kontratua sinatzerakoan etxebizitza horrek merkaturatu duen prezioaren arabera" kalkulatu dute. Gero, errenta hori urtero berraztertuko egingo dute, errentaren zenbatekoa eguneratzeko.

Kontratuak bost urterako izaten dira, bost urteok amaitzean luzatzeko aukerarekin.

BESTE 216 ETXEBIZITZA, SALTZEKO

Alokairu sozialeko etxebizitza horiez gainera, beste 216 eraikitze asmoa dauka Eusko Jaurlaritzak Zerrajeraren orubean. Beste bloke batean eraikiko lituzke. Horiek, baina, saltzeko asmoarekin eraikiko ditu.

Dena den, Visesako ordezkariak jakinarazitako moduan, "promozio horrek ez dauka finkatuta lizitazio datarik, eta, beraz, ezta obrak hasteko eperik ere".

ZERBITZUAK &gt; UDALTZAINGOIA

## Herriko negozioien datu basea egiteko informazioa batzen hasi da Udaltzaingoa

Negozioren batean zerbait gertatuz gero udaltzainek zeini abisatu behar dioten jakiteko osatu gura dute datu basea

U.M. &gt; ARRASATE

Asteon ikusi ditugu udaltzainak Arrasateko negozioak bisitatzen. Hain justu, komertzioen eta komertzio horren ugazabaren oinarritzko datuak batzeko inprimakiak banatu eta batzen ibili dira. Datu basea osatuko dute gero informazio horrekin, negozioen batean zerbait gertatuz gero udaltzainek jakin dezaten zeini abisatu behar dioten; batez ere, gertakari hori gauzez edo oporraldian gertatzen bada: itoginen bat, ate edo leihoren bat zabalik utzi izana, lapurretaren bat...

Egunotan alde zaharreko negozioak bisitatzen ibili dira eta datozen egunotan, berriz, auzoetan segituko dute.



Udaltzaina Goizalde tabernako Mikel Tabares ugazabari inprimakia ematen. U.M.

Udaltzaingoaren helburua da Arrasateko negozio guztietara joatea, poliki-poliki. Hala ere, baliteke baten batek ihes egitea, eta, hori dela-eta, jakinarazi dute gura duenak inprimakiak eskuragai izango dituela Biztanleen Arreta Zerbitzuan eta Udaltzaingoan bertan.

Hori bai, azpimarratu gura izan dute, baita ere, inprimaki horiek betetzea borondatezkoa dela, ugazabaren arabera.

Edozelan ere, oro har, negozio jabeek oso ondo hartu dute ekimena: "Normala da; modu horretan, edozer gertatzen dela ere abisatu ahal izango digute".

Lourdes Jauregialtzo > HHIko arduraduna

## "Urduritasun handia zegoen treneko txartelak lortzeko"

U.M. &gt; ARRASATE

Egubakoitzean Lituaniatik abiarazi eta Europa erdi zeharkatu ostean, eguaztenean iritsi ziren Arrasatera Lourdes Jauregialtzo eta Miren Bengoa, Helduen Heziketa Iraunkorreko ordezkariak. Beste milioika bidaiari moduan, hegazkinean bueltatzeko aukera barik geratu ziren Islandiako sumendiaren eraginez.

Bide luzea egin duzue...

Egubakoitzean Vilniustik (Lituaniako hiriburua) irten eta zapatuan Varsovian gosaldutua genduen, Berlinen bazkaldu eta Stuttgartetik pasa ostean, Lyonera iritsi ginen. Han egon gara Gasteizerako autobus txartela erostea izan genduen arte. Trenean eta autobusean ibili gara.

Eta txartelak lortzeko?

Gu izan ginen txartela lortu zuten horietako batzuk. Urduritasun handiak ikusi ditugu. Denok batera iristen ginen trenera, eta txartelak ez zegoen. Bestalde, oso informazio gutxi jaso dugu; adibidez,



Lourdes Jauregialtzo. GOIENKARIA

Lyonen trenekoak greban zeuden... Fagorren kamioien bat honantz irteten zen-edo, hori ere ibili ginen begira han. Azkenean, autobus bateko azkeneko txartelak eskuratu genituen.

Dena den, elkarlaguntza handia ere ikusi dugu.

**Eta zelan ibili zarete bidaiari antolatzen?**

Laguntza handia jaso dugu lankide eta familiaren aldetik.

OSPAKIZUNAK > ERRALDOI ETA KILIKIAK

# Herriari euren lana erakustea helburu, jai handia antolatu du konpartsak biharko

Bi konpartsen saioez gain, hainbat ekitaldi: puzgarriak, trikitalariak, gaitariak eta dantzariak

Txikien marrazki lehiaketako sari banaketa eta zozketa egingo dute: bildots bat eta bi botila ardo

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Kiliki eta Erraldoien Konpartsen eguna da bihar. *Konpartsen entsegua kalean* izeneko jai antolatu dute, eta, izenak dioenez, konpartsen lana herriari erakustea da ekimenaren helburua.

Duela lau urte inguru kide beheraldi nabarmena izan zuen helduen konpartsak, errelebo falta. Eta orduan taldearen etorkizuna iluna zen oso. Hala ere, orain dela bi urte heldu zen errelebo; txikien hartu zuten, hain zuzen. Ordutik, argitzen joan da bidea, eta horren adierazle izan-

go da biharko jai. Izan ere, egun osoan –goizean, 11:00etatik 14:00etara; eta arratsaldean, 18:00etatik 20:30era– askotariko ekitaldiak izango dira Herriko Plazan. Konpartsa txikiak goizean egingo du saioa eta helduek, berriz, arratsaldean. Hala ere, trikitalariak, dantzariak eta gaitariak ez dute hutsik egingo.

Gainera, jaialdia iragartzeko kartelaren lehiaketako saria emango diote Erguin eskolako Nere Zubillagari, goizean. Horrez gain, plazako txosnak bildots bat eta botila bi ardo zozketatuko ditu.



Konpartsak badu harrobia; irudian, iazko sanjuanetako saioa.

GOIENKARIA

**DIRUA, HARROBIA BERMATZEKO**  
Plazako txosnan jatekoa eta edatekoa erosi ahalko da. Jaietan jasotzen den dirua, Iñaki Azkoaga

arduradunaren esanetan, talde "ertaina" sortzeko erabiliko da. 11 eta 16 urte arteko gaztetxoak bilduko ditu, harrobia bermatzeko.

Ion Ugarte > Gaztetzeko kidea

## "Gaztetxe Eguna ospakizunerako eta herriari egiteko gai garena erakusteko eguna izango da"

J.B. > ARRASATE

Gaztetzearen 19. urteurrenoko aste bukaera potoloena biziko du AGAKOK. Bihar izango da egun handiena: Gaztetxe Eguna. 160 lagun-dako tokia dago bertso bazkarian eta gaztetzeara lepo betetzea espero du batzarrak. Ion Ugarte (Arrasate, 1985) aritu da, besteak beste, eguna antolatzen; harekin egon gara.

**Gaztetxe Eguna izango da bihar, baina gaur ere egun berezia duzue, ala?**

Hala da. Euskal Herriko 28. espeleologia jardunaldiak izango dira eta diapositiba emanaldi bat egingo da. Horrez gain, Oñatiko espeleologia taldekoek Joseba Iglesiasen omenezko diapositiba emanaldia egingo dute. Jardunaldiak 18:30ean hasiko dira. Gauean, berriz, Xasta eta Zea Mays taldeen kontzertua



Ion Ugarte, gaztetzearen atarian. J.B.

egongo da. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.

**Eta bihar, Gaztetxe Eguna. Zertarako antolatu duzue?**

Herri osoarendako antolatu

dugu, ospakizun egun handi moduan. Baina herriari zer egiteko gai garen erakutsi gura dugu; hau da, indar handia dugula.

**Zein da egitaraua?**

Goizetik goizerako egitaraua antolatu dugu: 12:00etan triki-poteoa, 15:00etan bertso bazkaria gaztetzear eta bazkalostean, Urretxu-Zumarragako punk talde ibiltari batek girotuta jolasak egingo ditugu herriko kaleetan. Eta azkenik, gaupasa. Domekan, bestalde, bat egingo dugu AHTren aurkako mendi martxarekin.

**Amaitzeko, ospatu diren ekitaldien balorazioa egiterik bai?**

Orain arteko harrerarekin oso pozik gaude. Jende asko hurbildu da, eta adin askotarikoa. Herrian babesa dugu eta horrek indarra ematen digu jarraitzeko.

> HITZALDIAK

**Bilkuren aretoa beteta, 750 urteen inguruko lehen hitzaldian**

Eguaztenez hasi zen Arrasatek hiri-gutuna jaso zueneko 750. urteurrenaren harira antolatu den hitzaldi zikloa. Ondo hasi ere, osoko bilkuren aretoa lepo bete zen-eta.

Hurrengo hitzaldia hilaren 28an izango da: *1200. Lurraldetasunaren galera*. Bilkuren aretoan, 19:00etan.

> UDALA

**Lan eskaintzan izena emateko azken eguna, maiatzaren 6a**

Udalak egin duen lan eskaintza publikoan eskabideak jasotzeko azken eguna da maiatzaren 6a. Hiru modu daude eskabideak aurkezteko: BAZeko inprimakia betetzea, Udalaren webgune berri-tuan egitea edo postetzeko bulegoen bitartez bidaltzea.

bere ustez



Zuriñe Velez de Mendizabal

Beste behin ere, oker dabilta

**E**uskaldunon Egunkariaren aferaren gaineko epaiak akusatua absolutu bitu dituela ezagun dugu gurtio. Ziur aski, herri-akusazio gisa azaldu ziren taldeak –ez dute aipamen minimo bat ere merezi– negarrez arituko dira euren aburuz gauzak gaizki egin direlako.

Eta hara, euskal gizartea ere kexu da arrazoi berberetatik, txarto egin diren makina bat kontu daude-eta auzi honen inguruan bueltaka. Gehiegi.

Ikuspuntua guztiz beste-

**"Euskaldunoi, 'erruduna, kontrakoa frogatu arte' aplikatzen digute behin eta berriz"**


lakoa izan beharrean, *errudunak, kontrakoa frogatu arte* aplikatzen digute behin eta berriz euskaldunoi eta oraingoan ere, Negu Gorriak taldeak bere garaian argi eta garbi kantatzen zuen moduan, *Oker dabilta*. Ez da eskubideak zapaldu dizkiguten aurreneko aldia izan, ez eta hedabide bat itxi duten lehenengoa, ezta akusatua libre geratzen diren lehendabizikoa ere. Inuzentea izan gurako nuke, aitortzen dut, eta berriz errepikatuko ez dela sinetsi.

Baina zoritxarrez, aurrerakiek erakusten digute gizon-emakumeok harri berarekin zenbatetan egiten dugun tupust, eta beldur nahiz ea etorkizunean oraindik *dèjà vu*-ren bat ez ote dugun izango...

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



arbolapeta



&gt; BESAIDE

**Ekainaren 5ean  
egingo dute  
beteranoen irteera**

Beasaideko beteranoek ekainaren 5ean egingo dute urteroko irteera, eta oraingoan kostaldera joango dira, Deba eta Zumaia banatzen dituzten kilometroak egitera, itsasoaren ondotik, bide ederretik.

Egun-pasa horretarako izena emateko epea maiatzaren hasieran irekiko da eta 28ra arte izango da zabalik. Irteerara apuntatzeko deitu Beasaideko egoitzara (943 77 30 66) edo joan egoitzara astelehen, martitzen edo eguaztenetan (19:30-20:30).

&gt; ATLETISMOA

**Eskola arteko  
Gipuzkoako  
txapelketa domekan**

Gipuzkoako eskola arteko txapelketa maiatzaren 23an egin behar zuten, baina aldaketa bat dela eta ibarreko atletek oraingo domekan izango dute hitzordua.

Bestalde, joan den astean aire zabaleko Euskadiko txapelketan izan ziren Arrasateko atletak. Jonathan Perezek (Reala) 4,60 metroko saltoa egin zuen. Domekan Maialen Axpe bigarrena izan zen Durangon (3,40), eta hirugarren Lore Mar aretxabaletarra (3,20).

&gt; ERRUGBIA

**Santanderren  
amaituko du  
Arrasatek liga**

Joan den asteko garaipenaren ostean (34-10, Uribealderen kontra), Arrasatekoek gorpuzaldi hobearekin egingo dute bidaia Santanderrera, denboraldiko azken partidua jokatzera.

Atzoko garaipenari esker Arrasateko taldeak 5 puntu ditu, eta Igor Isasiren mutilak sailkapeneko erdialdean daude. Asteburuko kontrario unibertsitarioek, berriz, aurtengo ligan oraindik ez dute garaipenik batu.



Javi Zurbano, jokalariei aginduak ematen Iturripen, hutsarte baten.

GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > LEHEN NAZIONAL MAILA, JAITSIERA FASEA

# Ezin dute hutsik egin

Joan den astean Gasteizen galdu ostean, MUK geratzen zaizkion laurak irabazi behar ditu

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Ahalegindu egin badira ere, Javi Zurbanoren mutilak azken lau jardunaldietara iritsi dira kategoriari eusteko etxeko lanak egiteke. Iaz txirripaz lortu zuten, eta aurten beste horrenbeste egiteko dena beharko dute alde: denboraldian zehar tarteka erakutsi

duzen joko maila, zortea aldeko izatea eta harmailetan etxeko bultzada igartzea.

Lau partidu, lau final, eta ondoren etorriko dira balorazioak; gertatzen bada, kategoriatzeta zenbaterainoko den larria, edo zenbateraino laguntzen duen jokalar oso gazteekin maila

horretan segitzeak –kategoriako gazteena, batez besteko 21 urte–, urtetik urtera larri ibilita.

Gertatzen dena gertatuta, taldeak merezi du azken lau jardunaldi horietan ia ezinezkoa den horretan sinistea, eta horren alde geratzen zaiena ematea. Hala, irabazi beharreko lehenengo partidua oraingo zapatuan jokatu dute, 18:00etan, Iturripen, Tolosako Bide Bide Ibiza taldearen kontra. Ez du balio hutsik egiteak.

## Aerobikean Euskadiko onenen artean

Domekan egin zuten Musakolan Euskadiko aerobik txapelketa, eta Dragoi taldeko neska bigarren sailkatu ziren taldeka (Naiara Zabarte, Leire Poyato, Leire Gonzalez, Saioa Arriola eta Jone Goikolea).

Zapatuan, berriz, gaztetxoak Bergaran lehiatu ziren, eta batutako emaitzen artean aipatzekoa da taldeka kadetetan lortutako lehenengo postua.



DRAGOI GIMNASIA TALDEA

**zaldibar****EMAITZAK**

McAwenDauen-Ekaintz	5-4
AT Celaya-Cipris	2-5
Aldapa-Lasagabaster	4-8
Dublin-Dribling	4-9
Betrayer-Abokajarro	2-8
Iriztu-Steaua del Grifo	19-4
Komando Alpagat-Fidel & Disc.	2-9

**PARTIDUAK**

<b>Apirilak 24, zapatua</b>	<b>Epaileak</b>
10:30 Cipris-Aldapa	Katenatxio
11:30 Katenatxio-Komando Al.	Cipris
12:30 Steaua del Grifo-Iluntz	Komando Al.
16:00 Abokajarro-Iriztu	Betrayer
17:00 Dribling-Betrayer	Abokajarro
<b>Apirilak 25, domeka</b>	<b>Epaileak</b>
10:30 Lasagabaster-Dublin	AT Celaya
11:30 AT Celaya-Ekaintz	Lasagabaster
12:30 Katenatxio-Iluntz	Ekaintz
13:30 Fidel & Disc.-McAwenDauen	Iluntz

**SAILKAPENA**

	P	J
1. Dublin	36	14
2. Dribling	35	14
3. Iriztu	32	14
4. Abokajarro	29	14
5. Betrayer	27	14
6. AT Celaya	26	14
7. Lasagabaster	24	14
8. McAwenDauen	21	14
9. Cipris	19	14
10. Fidel & Disc.	18	14
11. Ekaintz	16	14
12. Aldapa	9	14
13. Iluntz	5	14
14. Katenatxio	4	14
15. Komando Alpagat	2	14
16. Steaua del grifo	0	14

### Liga erregularreko azken partiduan lidergoa dago jokoan

Asteburuan emozio handiko partidua jokatu dira Zaldibarren: batetik, joan den asteko garaipenari esker Driblingek puntu batera du lehen sailkatu Dublin, eta esan behar da liga erregularrean lehenengo geratzen den garaikurra izango duela.

Horrekin batera, baina, ikusteko dago ze talde sailkatuko den zortzigarren postuan, azken faserako aukera ematen duen postuan, alegia. McAwenDauen taldeak bere esku du zortzigarren sailkatzea, eta Ciprisek aurreko taldearen hanka-sartzearen zain egon behar du.

UGARAN  
JatetxeaGaragartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATEZenbaki  
Aholkulariak**• Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

**• Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

**• Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

**• Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

**Berezitasunak**Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroakArrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

MUSIKA > KONTZERTUAK

# Musika klasikoan dago oinarrituta aurtengo Udaberriko Musikaldia

Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak eta Goikobalu abesbatzak elkarrekin abestuko dute bihar, zapatua, San Frantzisko elizan

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Musika klasikoa izango du oinarrian Udalak antolatutako Udaberriko VI. Musikaldiak. Lau kontzertu izango dira guztira, bi asteburu honetan eta beste bi hurrengoan.

ETXEKOEN ARRAKASTA

Seigarren urtez antolatu du Udaberriko Musikaldia Arrasateko Udalak, eta, orain arteko esperientzia ikusita, aurtengo kontzertuetan ere aretoak betetzea espero du Udaleko Kultura Sailak. "Gero eta jende gehiago joaten da hitzordu horietara; gorantz doan eskaintza da. Joan den urtean, esaterako, Goikobaluren kontzertuak goraino bete zuten are-



Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak.

MUSIKALDIA 2010

toa. Abesbatza horrek eta Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak kontzertu bana eman zuten iaz, baina aurten, eurek eskatuta, elkarrekin joko dute. Bihar, zapatua, izango da kontzertu hori", azaldu du Karmelo Alberdik, Udaleko Kultura Sailko teknikariak.

Bi talde horiez gain, musika barrokoa egiten duen Euskobarrokensemble, 10 eta 17 urte arteko abeslariz osatutako Leioa Kantika Korala eta munduko pianojole onenen artean dagoen Alessio Bax-ek emango dituzte antolatutako gainerako hiru kontzertuak. Espainian egiten ari den bira

aprobetxatuta, "Arrasatera gonbidatu" dutela Alessio Bax zehaztu du Alberdik.

DOAN

Joan den urtean bost kontzertu antolatu zituzten, baina aurrekontu txikiagoa izan du Kultura Sailak aurtengo Udaberriko

Musikaldirako, eta lau antolatu ditu. "Datozen taldeen tamainagatik, ez dira Kulturaten sartzen, eta horregatik erabaki dugu lehen bi kontzertuak San Frantzisko elizan egitea eta datorren asteburukoak San Joan parrokiaren. Doan dira guztiak", gogorarazi du Karmelo Alberdik.

## Kontzertuen egun eta orduak

**Apirilak 23, egubakoitza**

20:00 Euskobarrokensemble.  
San Frantzisko elizan.

**Apirilak 24, zapatua**

20:00 Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak eta Goikobalu abesbatza.  
San Frantzisko elizan.

**Apirilak 30, egubakoitza**

20:00 Leioa Kantika korala.  
San Juan parrokiaren.

**Maiatzak 1, zapatua**

20:00 Alessio Bax piano-jolea.  
San Juan parrokiaren.

LIBURUAREN EGUNA > IPUINA ETA POESIA

## Poesia errezetaldia eta umeendako ipuin kontaketa datorren martitzenean

Poesia emanaldian komuneko paperean idatzitako 30 poema errezitatuko dituzte, musika elektronikoz lagunduta

O.E. > ARRASATE

Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldien egitarauaren barruan, poesia errezitaldia eta umeendako ipuin kontaketa antolatu ditu Arrasateko liburutegiak apirilaren 27rako.

KOMUNEKO PAPERAN

*Komuneko paperean* du izena, hain zuzen ere, martitzeneko poesia errezitaldiak. Imanol eta Mattin Epelde Pagola anaiak zaraiztarrek moldatutako ikuskizuna da. Izenak dioen moduan, komuneko paperean idatzitako eta komunean irakurtzekoak dira poemak, eta, horrela, komun bihurtuko dute emanaldi-aretoa. Poemen irakurketa musikarekin lagunduko dute, musika elektronikorekin, batez ere.



Imanol eta Mattin Epelde anaiak.

27 ZAPATA

*Komuneko paperean* izeneko ikuskizun horrek 50 minutu inguru irauten du eta 30 poemaz osatuta dago.

Edonorendako den poesia errezitaldi hori Kulturateko areto nagusian egingo dute, 19:30ean, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu dituzten ekitaldien barruan.

IPIUIN KONTAKETA

Horrekin batera, umeendako ipuin kontaketa ere antolatu dute martitzenerako, apirilak 27. Ixabel Millet ipuin kontalariak bi emanaldi egingo ditu: 3-5 urte artekoendako, 17:00etan, eta 6-8 urte artekoendako, 17:30ean. Bi saio horiek Santa Marinako auzo liburutegian egingo dituzte.

> LITERATURA SARI BANAKETA

## Gaur aditzera emango dituzte AEDko literatura lehiaketako irabazleak Kulturaten

Liburuaren Nazioarteko Egunarekin batera emango dituzte aditzera AEDk antolatu duen aurtengo literatura lehiaketako irabazleak. Kulturaten izango da sari banaketa, 18:00etan. Aurten, gainera, Fernando Morillo idazleak hitzaldia egingo du sari banaketa ekitaldi horretan. Luncha izango da ondoren.

> HITZALDIAK

## Lurraldetasunaren galerari buruz hitz egingo dute eguaztenean hiri-gutunaren hitzaldi zikloan

1200. *Lurraldetasunaren galera* izenburua du hiri-gutunaren gaineko hitzaldi sortaren barruan antolatu duten bigarrenak. Datorren eguaztenean, apirilak 28, izango da hitzaldi hori Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Hizlaria Aitzol Altuna izango da, historiaren ikertzailea. Antolatutako beste hiru hitzaldiak maiatzean egingo dituzte.



Dani  
Fontecha

Gaur Apirilak 23  
00:00etatik aurrera

IAMAIANTZOKIA  
ARRASATE



Jarduneko langile, bazkide eta lagunak Santa Ana parkean, eguaztenean.

MONIKA BELASTEGI

# Herritarrekin ospatu nahi ditu bihar Jardun elkarteak 20 urteak

Elkarteko taldeek saioa egingo dute eta herri bazkaria ere egongo da

Urteotan nabarmen hazi da; 600 bazkide ditu gaur egun

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
Jardun euskara elkarteak 20 urte bete ditu eta urtemuga ospatzeko egitarau berezia prestatu du biharko, zapatua. Herritar guztiei zuzendutako "egun berezia" izatea nahi dute eta herritarrek "parte hartzea" gonbidatzen dituzte. 12:00etan hasi eta gaur arte askotariko ekitaldiak egongo dira (ikus taula).

Ardo onari moduan, on egin diote urteek Jarduni eta nabarmen hazi da sortu zenetik, 1990a ezkerro: 600 bazkide ditu eta esparru askotara zabaldu da, hala

nola haur eta gazte sailak ditu, aisialdi taldea, euskara errefortzuak eta euskal kultura bultzatzeko eskolak (trikiti, bertso eta dantza eskolak). Eta horrekin guztiarekin batera, udalekuak ere antolatzen ditu, eta askotako ikastaro, tailer eta hitzaldiak.

**ERABILERA SUSTATZEA HELBURU**  
Herrian euskal giroa berpizteko, kultura ekintza euskaldunak bultzatzeko, euskaltzale guztien indarrak batzeko eta euskara-

ren erabilera sendotzeko sortu zuten Jardun, elkarteko lehendakari Itsaso Mendizabalek azaldu duenez. Eta "gaur egun ere helburu berak edo antzekoak" izaten jarraitzen dutela gehitu du, "oraindik guztiz betetzeke daudela" uste dutelako.

Garaiak asko aldatu dira 20 urteotan, baina hori ez da oztopo izan euskara elkartearendako;

egokitzen jakin izan dutela dio Mendizabalek eta gehitu du horixe izan dela, hain justu, "20 urte igaro eta gero bizirik jarraitzearen gakoetako bat".

Horrekin guztiarekin Jardunek lanean "gogotsu" jarraituko duela azpimarratu du lehendakariak, "euskarak bizi nahi duenarentzat aukerak eskaintzen, hizkuntza normalizatzeko".

**Itsaso Mendizabal >**  
Jarduneko lehendakaria

## "Oraindik euskara elkarteek egiten duten lanaren beharra dago"

**M.B. > BERGARA**  
Jarduneko lehendakari kargua estreinatuta berri du Mendizabalek. Hala ere, gertutik ezagutzen du elkarteak.

Zein da egungo erronka nagusia?

Eguno -eta urtetako- erronka nagusia da herrian euskaraz bizi ahal izateko esparruak sortzea. Horretarako, ezinbestekoa da gizartea sentsibilizatzea eta norbanakoek euskararekiko duten jarreraren eragitea. Hain justu, hori da gehien kostatzen zaiguna: jendearen erabilera sustatzea.

Beste 20 urte beteko ditu?

Espero dut baietz, oraindik euskara elkarteek egiten duten lanaren beharra dago-eta. Duela 20 urte baino euskal produktuen eskaintza handiagoa dago, baina hala izan dadin ziurtatu behar dugu.



M.B.

### Egitaraua

**12:00** Jarduneko taldeen emanaldia, Munibe plazan.

**13:30** Kalejira, trikitalariekin.

**14:30** Bazkaria Artatsen. Gero, kantu jira. Txartelak eros daitezke Jardunen, Irrintzin eta Arranon. 12 euro bazkideek eta 15 gainerakoek.

**22:30** Xero Xette taldearen kontzertua, Munibe plazan.

Altzari denda  
Ikerleku zeharbidea  
BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30


**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia  
San Juan 1a  
BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91  
Faxa: 943 76 08 04

- Proiektuak
- Koltxoak

- Horma-armairuak
- Altzariak neurriira

- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean



**trinmer**  
telecomunicaciones

**tdt** televisión digital terrestre

## GOITB jada LTDn! Egokitu zure antena GOITB-DIGITALA ikusteko.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne



TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305  
Egogain Kalea 2-Bac 20600 **EIBAR**

Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60 | [antenas@trinmer.com](mailto:antenas@trinmer.com) | [www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)

UDALA > AZPIEGITURAK

# Agintaldia amaitu aurretik egongo da prest erabilera askotariko antzokiaren proiektua

Era berean, Seminarioko lur azpian aurreikusita dauden aparkalekuak kontzesio sistema bidez egitea aztertzen dihardute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Erabilera askotariko antzokiaren funtzio eta antolaketa fisikoa diseinatzeko prozesu parte-hartzailea asteon amaitu da. Hiru batzar egin dira prozesuaren barruan, azkena martitzenean, eta herritarrek eta Udalak berak positiboki baloratu dute. Barruso alkateak hala esan du: "Balorazio oso positiboa egiten dugu eta eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu dutenei. Izan ere, oso garrantzitsua izan da haien ekarpena antzokiaren diseinuan asmatzeko".

ESPAZIOA, DEFINITUTA

Batez beste, 50 herritarrek hartu dute parte batzarrotan; kultura sortzaile, ekoizle eta kontsumitzaileek. Lehenengo bi batzarretan, instalazio arloan dituzten beharren zerrenda osatu zuten, eta, behar horiek asetzeko beharrezkoak diren espazioen zerrenda egitearekin batera, espaziook garrantziaren arabera antolatu zituzten. Martitzenean egindako azken batzarrean, antzokiaren dako ezinbesteko jotzen dituzten espazioen zerrenda osatu zuten,

garrantzia hori argudiatuta eta espazio horiek gaur egun alternatibarik duten aipatuta.

Hala, honako espazioak behar direla ondorioztatu zuten: 600-800 lagunendako lekua eta kamerinok izango dituen erabilera askotariko antzokia –hori izango da espazio zentrala– eta eragile kulturek entseatzeko gelak, kontuan izanda jarduerak –musika, antzerkia, dantza...– eta tamaina handiko jarduerak direla, gainera –instrumentu handiak, abesbatza handiak, dantza akademia...

Zerrendan zeuden arren, ez ziren lehentasun kontsideratu balizko antzokitik kanpo alternatiba badutelako (Zabalotegi, kultura etxea eta Aroztegi): erakusketak gela, materiala gordetzeko zein artxiborako gelak, Udaleko Kultura Sailerako lekua, bileretarako gela, tailer eta ikastaroetarako gelak, kafetegi-jatetxea eta auditorium txikiago bat.

JARRAIEN BATZORDEA ERATUTA

Hurrengo urratsa ere zehaztu zen martitzenean. Hain justu, Udala konprometitu zen agintaldia amaitu aurretik proiektu urbanistikoa eginda lagatzeko. Eta horrela denean –6-8 hilabete–, prozesuan parte hartu zuten herritarrei, zein gainontzekoei, proiektua aurkezteko batzarra deituko dutela azpimarratu zuen Barruso alkateak.

Bestetik, proiektu urbanistikotik jarraipena egingo dion batzordea ere eratu zuten; 20 bat pertsona hartuko dute parte.

APARKALEKU BEHARRA

Herrian dagoen aparkaleku arazoaren haritik, antzoki berriaren

"aurreproiektuan, behintzat", lur azpiko aparkalekuak jasotzeko proposamena ere egin zuten herritarrek martitzenean, "gero egingarria ez bada ere". Horren haritik, Barruso alkateak Seminarioko lur azpian aurreikusita dauden aparkalekuak ekarri zituen gogora eta azaldu zuen "kontzesio sistema bidez egitea aztertzen" dihardutela eta datorren astean horretan diharduen enpresa batekin hitzordua dutela. Hala eta guztiz ere, ezkor azaldu zen alkatea: "Dagoeneko hainbat enpresarekin egon gara eta esan dute kontuan izanda Bergarak duen masa kritikoa eta aparkalekuak ez ordaintzeko kultura, ez dela bideragarria". Eta Azkoitian ere erantzun bera jaso dute eta orain beste alternatiba bat aztertze dihardute: doko AOT sistema".

Seminarioan lur azpiko aparkalekuak egin ahal izatea "oso zail" ikusten du alkateak. Izan ere, egiteko modu bakarra "Udalak kosteatzea" dela aurreratu zuen alkateak, baina gaur egun Udalak horretarako dirurik ez duela.

## txaloak eta txistuak



OIHANA ELORTZA

## Labegaraietako skategunea apurtuta eta arriskutsu dago



Labegaraietako irakurle batek txistua bidali digu kiroldegi ondoko skategunearen harira; hain justu, irudian ikusten den mailaren harira. Dio duela hainbat aste apurtu zela eta gero eta okerrago eta arriskutsuago dagoela. Eta gehitzen du: "Arriskutsu egoteaz gain, dagoen moduan egonda alferrik dago, goiko base barik skaterrek ezin dutelako erabili".

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

## oharrak

KINTADA

> **1963an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 8an**

Etxagin egingo dute. Interesa dutenek Ariznoa eta Dixula tabernetan eman dezakete izena, 10 euro aurreratuta, maiatzaren 2a baino lehen.

UDALA

> **Bergararen gaineko liburuak 3 eurotan daude salgai**

Urtetan Udalak argitaratutakoak dira, guztiak Bergararen gainekoak, eta kultura etxean daude salgai, hilaren 29ra arte.

KINTADA

> **1970ean jaiotakoek kinto bazkaria maiatzaren 1ean**

Tartufon egingo dute. 12:30ean hasiko dute txikiteoa, Ariznoa tabernan, eta jatetxera-

ko autobusa 14:30ean irtengo da, azokatik. Izenematea: Ariznoan 20 euro ordainduta edo kontu honetan sartuta: 3008 0169 53 2059080826.

KINTADA

> **1965ean jaiotakoek afaria egingo dute maiatzaren 1ean**

Tartufon egingo dute, 22:00etan. 19:00etarako jarri dute txikiteorako ordua, Pol-Polen, eta 21:30ean abiatuko da urbanoa, Fraiskozuritik. Izenematea: Ariznoan eta Pol-Polen, [ktxaniz@euskalnet.net](mailto:ktxaniz@euskalnet.net) helbidean edo 629 56 29 25 zenbakian.

KINTADA

> **1927an jaiotakoek urteko bazkaria apirilaren 24an**

Zumelagan egingo dute, 14:00etan. Izena emateko 20 euro

sartu behar dira apirilaren 21a baino lehen Euskadiko Kutxan: 3035 0009 16 0091135650.

KINTADA

> **1949an jaiotakoek urteko bazkaria maiatzaren 8an**

Tartufo jatetxean egingo dute eta urbano zerbitzua egongo da. Izena emateko deitu 650 85 38 57 eta 666 49 04 62 zenbakietara.

IKASTAROA

> **Ostalariendako ikastaroa antolatu du Prebentzio sailak**

Gaueko jai-giroaren kalitatea hobetzeko ingurumen-jarraitibideak ematea da helburua. Maiatzaren 10eko astean izango da. Izenematea da hilaren 30era arte, 943 77 91 26 zenbakian, 07:30-14:00 ordutegian.



**Udaberria-uda heldua da!**

**IGARZA**

Domingo Irala 5  
BERGARA  
Tel.: 943 76 24 88

SASKIBALOA &gt; GIPUZKOAKO LIGA

# Senior mailako taldearen partidu erabakigarria domekan

Liga amaitzeko hiru partiduren faltan, jaitsiera saihesteko borrokan da David Urbinak zuzendutako taldea

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Bergara KEko senior mailako lehen taldeak partidu erabakigarria izango du domekan, 17:00etan, Labegarrietako kiroldegian. Bergararrek Internacionalek taldea izango dute aurrez aurre. Liga amaitzeko hiru partiduren faltan, mailari eusteko

borrokan da Soraluze Bergara taldea. 14 talde dira Gipuzkoako ligan eta sailkapeneko azken aurreko tokian dira mahoneroak, 28 punturekin.

Jokatutako 23 partiduetatik, 5 irabazi eta 18 galdu ditu Bergarak. Hasieran Unai Iñarra zen taldeko entrenatzailea, baina azken hilabetean David Urbinak ordezkatu du Iñarra. Joan den asteburuan balio handiko garaipena erdietsi zuten mahoneroek Donostian, Atco. San Sebastiani 49-51 irabazita.

**HIRU FINAL AURRETIK**

Domekako Internacionalek aurrakako partidua bergararren lehen finala izango da. Internacionalek

Bergarak baino hiru puntu gehiago ditu eta sailkapeneko 10. tokian dago. Baina 8. postutik behera estu dago sailkapena: Atco. San Sebastianek eta Oiarzunek 32 puntu dituzte; Internacionalek 31; Goierri eta Kostkas 29 punturekin daude eta Bergara eta Teklan, azkenik, 28rekin daude.

Mailaz hiru talde jaitsiko dira, eta, gauzak horrela, zaleen laguntza ere beharrezkoa izango da domekan.

Senior mailako B taldeari dagokionez, berriz, Bergara hirugarren da sailkapenean. Xabi Aliagaren taldea Donibaneri nagusitu zitzaion azken jardunaldian, 57-65.



Bergarak 49-51 irabazi zion Atco. San Sebastiani azken jardunaldian.

BKE

## Hurrengoan, Bardeetara

Nafarroa aldean ibili ziren domekan Pol-Poleko beteranoak. Irurtzun inguruan dagoen Otxobi herritik irten eta Latasan bukatu. Tartean, Izurdiaga eta Aizkorbe herriak igaroz, ibilaldiaren erdialdean Trinidad de Erga ermitara igo ziren (975 m) eta ondoren Erga mendi tontorrera (1.050m). 35 lagun izan ziren. Maiatzaren 1erako eta 2rako Bardeetara irteera iragarri dute.



JUAN MARI SASIGAIN

&gt; PILOTA


### Bergara Hiria txapelketako beste bi partidu izango dira martitzenean, Udal Pilotalekuan

Bergara Hiria txapelketaren barruan, bi partidu jokatuko dira martitzenean Udal Pilotalekuan, 19:30ean: 22 urtetik azpikoetan Galartza-Bolinaga eta Mendinueta-Iturriaga izango dira aurrez aurre eta nagusietan Yoldi-Zabaleta eta Etxeberria-Bengoetxea.

&gt; FUTBOLA

### Lehen mailako erregionalak eta nesken futbol taldeak Ipintzan jokatuko dute asteburuan

Bergara KEko lehen erregional mailako taldeak Lengokoak hartuko du zapatuan Ipintzan, 15:45ean, igoera fasearen barruan. Neskek Aloñaren kontrako kopako partidua izango dute domekan, 17:45ean.



## KATAIA taldea

GAUR, apirilaren 23an 22:30ean



**KAI**  
TABERNA

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34



**EDEL**  
TAPIZ DENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



**ARRI**  
Industri hornidura  
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84



Ion Andueza > Argazkilaria

# "Kontraste handikoa da India; han ia dena da argazkirako gaia"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Argazkilaritza gertutik bizi izan du Ion Anduezak (Bergara, 1980), aita argazkilaria du-eta. Hala ere, argazkilaritza digitalarekin batera etorri zitzaion zaletasuna, 21 urterekin. Gaur zabalduko du lehen erakusketak: **India; 21 egun, hamaika bizipen.** Aroztegin zabalduko du, gainera; etxean, hain zuzen. Maiatzaren 16ra arte egongo da zabalik.

**Indiak aspalditik erakartzen zintuen, ezta?**

Hala da. Neskalagunak eta biok bagenuen India ezagutzeko gogoia eta 2008ko udan hara joatea erabaki genuen. Ez nintzen argazkiak ateratzera joan, aisialdirako bidaia moduan planteatu genuen. Hala ere, ohitura moduan daukat joaten naizen lekura kamera eroatea.

**Eta zer aurkitu zuen han zure kameraren objektiboak?**

Indian ia dena da argazkirako gaia, edonon dago enkadra-keta polit bat. Kontraste handiko herrialdea da: pobrea eta aberatsa oso gertu bizi dira. Horrez gain, koloreak oso bereziak dira, baita hango arkitektura ere. Hala ere, bereziki zentratu naiz india-



Ion Andueza Aroztegin, herenegun. J.B.

**Erakusketarekin zer erakutsi nahi duzu?**

Indiaren argazki bat erakutsi nahi dut, hainbat argazkiren bitartez. 92 argazki erakutsiko dira, eta, horrez gain, musikaz girotutako ikus-entzunezko bat ere jarriko dugu. Ikus-entzunezkoan erakusketan jarri ez ditudan beste hainbat argazki ikusi ahalko dira.

**Lehen erakusketa herrian izatea berezia izango da, ezta?**

Bai. Erakusketetara joateko ohitura daukat, asko gustatzen zait-eta argazkiak ikustea. Horregatik, aspalditik izan dut nire erakusketa zabalteko gogoia, eta Aroztegi zabaldu zutenean oso leku aproposa iruditu zitzaidan erakusketak egiteko; herrian bertan dago, gainera.

Bada, lehen erakusketa Bergaran eta Aroztegi moduko areto baten zabalte oso pozgarria da.

**Zerbait gaineratu nahi?**

Atzean izan dudan laguntza eskertu gura dut. Izan ere, proiektu txiki moduan hasi zen eta pixkanaka handitzen joan zen. Atzeko laguntza hori barik erakusketak zabalte ez zen posible izango.

**"Bereziki zentratu naiz indiarrengan; adin guztietako jendeari atera diot argazkia"**

rrereng: euren begiradak, keinuak... Adin guztietako jendeari atera diot argazkia. Bestalde, Indian pisu handia duten gaiak ere jasotzen ahalegindu naiz: tren eta erlijioa, esaterako.

MUSIKA > II. MUSIKA MODERNO LEHIAKETA

## Iazko arrakasta berretsita, 16 taldek hartuko dute parte

Lehiaketa domekan izango da Zabalotegin, goiz eta arratsaldez: saritan, 600 euro

Izan ere, Gipuzkoa osoko 16 taldek eman dute izena; iaz baino lau gehiago. Bergarako eta Oñatiko taldeez gain, besteak beste, Usurbil, Legazpi, Zumaraga eta Ermuko taldeak igoko dira Zabalotegiko agertokira.

J.B. > BERGARA

Eskolaren 25. urteurrena zela-eta, musika moderno lehiaketa antolatu zuen iaz Bergarako Musika Eskolak. Musika modernoaren barruan popa, rocka, bluesa eta soula dira estilo nabarmenenak. Iaz borobila izan zen arrakasta, eta, horregatik, aurten ere antolatu dute. Eta bete-betean asmatu dutela esan beharra dago.

**TALDE BAKOITZAK BINA KANTU**  
Goizean zortzi talde eta arratsaldean beste zortzi. Goizean 12:30ean hasiko dira eta arratsaldekoan, aldiz, 17:30ean. Talde bakoitzak bina kantu joko ditu, eta, beraz, lehiaketa osoan 32 kantu entzungo dira.

Saritan 600 euro banatuko dira: irabazleak 400 euro eta publikoaren sariak 200 euro.




Marije Ugalde, eskolako zuzendaria, iazko irabazleekin.

GOIENKARIA

# BATXILERGOA ARANZADI IKASTOLAN

**BATXILERGO TITULUA (hamabost promozio),  
hasitakoen %85,7 ik lortu du (EAE n %80k)**



Tel: 943 76 90 71  
San Martin Plaza 4  
20570 Bergara  
bergara@ikastola.net  
www.aranzadiikastola.org

**MATRILKULAZIO EPEA Maiatzaren 3tik 12ra  
BILERA INFORMATIBOA Apirilaren 28an, 18:30ean, Aranzadi Ikastolan**

AZPIEGITURAK &gt; BIDEGORRIA

# Uda parterako bukatuko dituzte Lazarraga kaleko bidegorriko lanak

Egaralur enpresak Lazarragako ezkerreko espaloia hesitu du eta zorua zulatzen hasi da dagoeneko

Bizikletendako bidea egokitzeaz gain, egun dagoen berdegunea berrantolatu egingo dute

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Egaralur enpresak hasi ditu Lazarraga kaleko ipar aldeko bidegorria egokitze lanak. Bidaurretako biribilgunetik Larraña auzorako igoera arte egingo duten bidegorriko lanak udarako bukatuko dituzte. Eñaut Muñoa arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera, Lazarraga kaleko espaloian jarriko duten bidegorria noranzko bakarrekoa izango da, eta lanak hiru hilabetetan egin beharko dituzte. Oraingoz, espaloia hesitu egin dute, eta makinak hasi dira zorua zulatzen. Hori horrela, oinezkoak kontu handiz ibili beharko dira, eta ezinbestean, Bidaurretako espaloia erabili beharko dute.

LAU PARTERRE

Bizikletendako bidea egokitzeaz gain, espaloian egun dagoen berdegunea berrantolatu egingo dute. Hori horrela, atsedenerako gune zabalak egokitu dituzte. Egun dauden ezki gehienak daudenetan utzi eta inguruan lau parterre egokitu dituzte. Horietan, eser-



Lazarragako espaloia zulatzen hasi dira, eta oinezkoek Bidaurretako bidea erabili behar dute.

MIREIA BIKUÑA

lekuak jarriko dituzte: bizkarralde bako eserlekuak berdegune aurrealdean, eta bizkarraldeen eserlekuak parterre barruan. Berdegunearen eta bidegorriaren artean bi metro pasako espaloia geratuko da oinezkoendako. 40 zentimetroko zabalera izango du.

ITURRIA JARRIKO DUTE

Bizikletendako bidea egokitze lanak aprobeztatuz, Lazarragako argiteria berritu egingo

dute. Hain zuzen ere, eraginkortasun energetiko handiagoko farolak jarriko dituzte. Gainera, iturria ipiniko dute.

SEI BIDE-ADAR

Orain egiten diharduten bidegorriaren parean beste bat egin zuten 2009ko azaroan. Bidaurretako biribilgunetik Olakua auzoko urmaelaren parean dagoen autobus geltokiraino egin zuten bidea Construcciones Ugarte

enpresak, Legazpirako noranzkoan. Zati hori Urrutxuko kirolgunetik Ugarkaldera joango den ardatz nagusiko tramuetako bat izango da. Bigarren ardatz nagusia Kurtzekuan hasi eta Berezaon bukatuko da.

Bi adar nagusiekin bat egingo duten sei bidegorri motzagoak aurreikusten dituzte: hain zuzen ere, Kalegoiena-Aita Lizarralde; Atzeko kale-Kalebarria-Lazarraga; Zubibarri-Irizar-

Gerriko kanto; Patrua kale-Arantzazuko Ama; Lizaur-Zubikoa; eta Errekalde. Guztira, hiru kilometro osatuko dute sei bide-adarrek.

2008ko udazkenean Udalak ia zazpi kilometroko bidegorri sarea aurreikusten zuen proiektua onartu zuen herri barrurako. Zati batzuk bizikletendako bide eskusiboak izango dira, eta beste zati batzuk autoekin partekatzeko bideak.

OSPAKIZUNA &gt; PAILAZOAK

## Bihar, Porrotx eta Mari Motots zubikoan

Pailazoen saioa egingo dute kiroldegian 17:00etan Txantxiku Ikastolaren Egunaren barruan

M.B. &gt; OÑATI

Urteroko zitari hutsik egin barik, Porrotx eta Mari Mototsek emaldia egingo dute bihar kiroldegian. Txantxiku Ikastolaren Egunaren baitan *Irrien lagunak* ikuskizuna eskainiko dute 17:00etan.

ATE IREKIEN EGUNA

Bestalde, ikastolako ikasleek askotariko ekitaldiak ospatuko

dituzte gaur eta bihar. Gaur 18:00etan gurasoendako jaialdia egingo dute kiroldegiko pilotalekuan 18:00etan. Bihar 11:00etatik 13:00etara, ate irekien eguna ospatuko dute, eta gelatan eskulanak egiteko aukera izango dute umeek eta gurasoek. 12:00etan, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek antzerkia egingo dute gurasoendako.



Pirritx ikastolako umeekin iazko emanaldian.

TXANTXIKU IKASTOLA

### oharrak

KIROLA

> Gaur, tenis txapelketarako izenemateko azken eguna

16 urtetik gorako interesatuek kiroldegiko bulegoan eman dezakete izena, 943 71 63 75 telefonora deituz, edo [zubikoa@oinati.net](mailto:zubikoa@oinati.net) helbidera idatziz. Oñatiko eta Debagoieneko kirol zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 15 euro. Txapelketa maiatzaren 8an hasiko dute.

ZINEMA

> 'Vacaciones de Ferragosto' zineklubean

Gianni di Gregorioren azken pelikula emango dute egunean, 20:00etan, kultura etxean.

> MUSIKA

### Ganbara Txikikoak Torreviejako habanera lehiaketan

Ganbara Txiki abesbatzak Torreviejako (Alacant) habanera lehiaketan parte hartuko du bihar. Aitor Biaine taldeak lau kantu eskainiko ditu: derrigorrezko habanera bat (Manuel Martinezen *Habanera salada*); eta eurek aukeratutako bi habanera eta polifoniako kantu bat; hain zuzen ere, *Habaneras del Carnaval* (David Azurtza), *Testigo de amor* (Armando Bernabeu) eta *Angelus* (Josu Elberdin) abestuko ditu.

> AISIALDIA

### Udalekuetarako izenematea zabalik hilaren 30era arte

Uztaileko udaleku irekietan parte hartu gura duten umeek Euskadiko Kutxan 65 euro sartu beharko dituzte hilaren 30a baino lehen. Aldiz, begiraleendako izenematea hilaren 28an bukatuko da. Curriculuma eroan beharko dute udal bulegora.

Udaleku irekiak uztailearen 1etik 30era egingo dituzte, txanda bakarrean. 4 eta 10 urte arteko neska-mutikoen gutuna jaso dute eskolan.

> MERKATARITZA

### Txanda txartelaren puntuak trukatzeko azken egunak

Oñatiko dendarien elkartearen Txanda txartela erabiltzen dutenek apirilaren 30era arte izango dute euren puntuak trukatzeko aukera. Erosketa Txanda txartelarekin egiten dutenei puntuak ematen dizkiete, eta orain dute horiek trukatzeko aukera, Rural Kutxan hilaren 30a baino lehen; hain zuzen ere, erosketa-bonoak jasoko dituzte.

Apirilean trukatzeko ez diren puntuak galdutzat emango dituzte.

> DEIALDIA

### Erretiratuek bidaia egingo dute Marina d'Orrera

Pake Leku elkarteak bidaia antolatu du maiatzaren 17tik 26ra. Oropesa de Marreko (Castello) Marina d'Orrera joango dira maiatzaren 26ra arte. Joaneko eta itzulerako bidaiak aprobetxatuz hainbat bisita egingo dituzte; hain zuzen ere, Vall de Uxon, Alcañizen eta Teruelen geldituko dira. Interesatuak erretiratuen elkartearen eman dezakete izena lehenbailehen. Bidaiagatik 360 euro ordaindu beharko dituzte.



Bitz taldeko kideak birako kontzertu batean.

BITZ

MUSIKA > EMANALDIA

# Bihar egingo dute Oñati 2zirik birako azken kontzertua

Emanaldia 17:00etan hasiko dute, eta aurretik bazkaria eta ondoren goatekea egingo dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Bihar egingo dute Oñati 2zirik birako azken kontzertua gaztetxean. Nos la suda, EZ!, Bitz, Drake, Galdu arte eta Klimesa ta kakarrastua kumunzuluan taldeak azken aldiz igoko dira oholtzara. Emanaldia 17:00etan hasiko dute. Aurretik bazkaria egingo dute –hiru euro da txartela–, eta ondoren, goatekea.

DISKOAK SALDU

Oñati 2zirik bira otsailaren 20an hasi zuten Arrasateko gaztetxean. Orditutik sei kontzertu egin dituzte, eta gustura daude emaitzarekin. "Kontzertu guztietan jende asko egon da, eta gehiengotara autobusean joandako Oñatiko jendea egon da. Oso gustura gaude, gure musika erakusketara eta disko batzuk saltzeko

aukera izan dugulako", esan digu Bitz taldeko Unai Murgiondok. Biran lan handia egin dutela esan digu: "Hiru hilabeteko lana izan da. Emanaldi guztietan ez gara sei taldeak egon, baina lan nekagarria izan da. Dena den, gusturaz ibili gara eta triste gaude", dio Murgiondok.

Bestalde, gaur gaztetxean Mikel Laboaren bertsioak egiten dituen Mikaela Piton taldeak emanaldia egingo du 21:30ean. Aurretik, globoflexia tailerra eta afaria egingo dituzte.

## beteranuak

EMAITZAK

LIGAKO A ETA B TALDEAK

Sasquatch-Dollygans	1-4
Txarrixak-Nandrolona	3-1
Joxely-Kalañatasaray	4-3
Zorrobero-Gibel Boys	3-2

PARTIDUAK

LIGA AZKEN FASEA, APIRIKAK 24

13:00:	Kalañatasaray-Zorrobero/ Altube
14:30:	Joxely-Gibel Boys/ Moli
18:30:	Dollygans-Txarrixak/ Marku

LIGA AZKEN FASEA, APIRIKAK 25

13:30:	Sasquatch-Nandrolona/ Mattin
--------	------------------------------

> Arduraduna 13:00-14:30:

Etxaibat

> Arduraduna 18:30-19:30:

Xaguxar

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1. Zorrobero	4	2
2. Joxely	4	2
3. Gibel Boys	3	2
4. Kalañatasaray	0	2

B TALDEA	P	J
1. Dollygans	6	2
2. Sasquatch	3	2
3. Txarrixak	3	2
4. Nandrolona	0	2

GOLEGILE ONENAK

1. Joseba Albizu (Doolygans)	16
2. Joseba Agirre (Txarrixak)	13
3. Gorka Zelaia (Joxely)	11
4. Carlos Gonzalez (Zorrobero)	8
5. Yera Varela (Zorrobero)	8

### Azken faseko azken lehiak

Aste bukaera honetan erabakiko dira zein taldek jokatuko dituzten finalerdiak. Kalañatasaray eta Nandrolona dira aukerarik ez duten talde bakarrak. Joxely-Gibel Boys eta Doolygans-Txarrixak erabakigarriak izango dira.



ELKAR HEZI

## Elkar Hezikoek hezkuntzaren alde egin zuten

Nazioarteko Hezkuntzaren Aldeko Astea ospatu dute asteon Elkar Hezi ikastetxean. *Hezkuntzaren aldeko GOLA* lelopean askotariko ekintzak egin dituzte eskolan. Besteak beste, Maialen Barrenak Nikaraguan izandako esperientzia kontatu zien Bigarren Hezkuntzako ikasleei, eta Lehen Hezkuntzakoek Maliri buruz katekesian sortutako ipuina kontatu zuten. Ekitaldi

nagusia atzo egin zuten: eskolako umeak plazan elkartu ziren 10:30etik 12:00etara ikasbide handia delako jokoan parte hartzeko, goiko argazkiak ikusten den moduan.

Kanpainaren helburua zen agintariei gogoraraztea hezkuntza garrantzitsua dela, eta lehentasuna eman behar diotela.



Markole auzoan egiten dabilzan kirol etxe berriko lanak, kirolgune bihurtuko den berdegunea aurrean duela.

M.A.

LANAK &gt; KIROL ETXE BERRIA

## Lanen epeak zehatz jakin gura ditu Udalak

Oinarria ondo finkatzeko arazoak izan dituzte eta horrek atzerapena eragin du; egiteko dauden faseak eta epeak zehazteko eskatu du Udalak

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Kirol etxe berriaren lanak aurrea doaz eta dagoeneko hasi dira lur gainean eraikitzen. Orain arte, baina, lur azpiko lanak egiten ibili dira Galdiano enpresako langileak; izan ere, arazoak izan dituzte oinarria behar bezala finkatzeko.

EPEAK BETETZEKO ZALANTZA

Zimendatze lan horiek atzerapena eragin dute kirol etxe berriaren eraikitze lanetan, baina Udalak ez daki zenbatekoa. Horregatik, egiteko dauden faseak eta epeak zehazteko eskatu dio Galdianori. Udalak eta Galdianok hitzartu zuten 20 hilabetez bukatzea lan guztiak. Hori horrela, datorren urteko maiatz inguruan bukatuta egon beharko lukete; gero kirol etxea janzten hasi eta

udazkenerako zabalik izateko erabiltzaileendako. Udalak ez daki epeak bete ahal izango dituen.

Bestalde, kirol etxe berriaren proiektuak aldaketa garrantzitsua izango du: ez dute eraikiko trinketik, arazo teknikoak direla-eta, eta beste proiektu bat egin

dute. Gobernu batzordeak egunotan aurkeztu die gainerako alderdiei eta datuak jasotzen dabilza informazio guztia izan dezaten esku artean erabakia hartu aurretik. Gainera, beste proiektu batzuei zabalik dago oraindik.

UZTAILERAKO PLANOAK

Bestalde, bukatu da kirol etxe aurreko berdegunean zer egin erabakitzeke parte-hartze prozesua. Hainbat herritarrek eta elkartetako ordezkariak proposatu dute paddle eta tenis pistak egitea, saskibalo kantxa, zortziko futbole-an jarduteko zelaia eta urarekin jolas egiteko gunea. "Balio erantsia duen jolasparkea egin gura dugu, zer edo zer diferentea. Eta kirola egiteko parkea izango da", jakinarazi du alkateak. Jasotako proposamen horiek guztiak orain berdegunearen plano gainean jarriko dituzte eta guztiendako lekua dagoen ziurtatu. Uztail inguruan aurkeztuko dizkiete planoak eta egindako txostena saioetan jardundakoei.

DATUA

20

HILABETE

2009ko irailean hasi zituzten kirol etxearen lanak eta 20 hilabetez bukatzea hitzartu zuten Udalak eta Galdianok, 2011ko udazkenerako zabalik izateko. Atzerapena izan dezake irekiera data horrek.

ERRETIRATUAK &gt; ZUZENDARITZA BATZORDEA

## Xabier Urtzelai izango da bi urtean Basotxoko presidente

Batzorde berriak lehen batzarra egin zuen eguaztenean udal ordezkariekin

M.A. &gt; ARETXABALETA

Martxoan egin zuen Basotxo erretiratuen elkarteak batzar orokorra, eta orduan, zuzendaritza batzordeko kide berriak aurkeztu zituen. Kide horiek dagoeneko hartu dituzte ardurak, eta Xabier Urtzelai izenda-tu dute presidente.

ZORTZI LAGUN BATZORDEAN

Azken bi urteotan presidente izan den Imanol Arantzabalek Xabier Urtzelairi pasatu dio aginte ardura eta hark zazpi lagun izango ditu alboan: Jesus Mari Martinez, idazkaria;

Miguel Cabero, diruzaina; Pedro Etxebarria eta Markel Mendieta, kulturako ordezkariak; Itziar Errasti eta Kontxi Romano, bidaien arduradunak; eta Jesus Osinaga, mendi ibilaldien arduraduna. Pedro Etxebarria, gainera, Gipuzkoako erretiratuen elkarteko batzordeko kide ere bada Jose Riviere presidente arrasatearraren alboan.

UDAL ORDEZKARIEKIN BATZARRA

Eguaztenean lehen batzarra egin zuen zuzendaritza batzorde berriak udal ordezkariekin. Inaxio Garro alkatea, Araceli Herran zinegotzia eta Begoña Arenatza Gizarte Zerbitzueta-ko teknikaria izan zituzten aurrez aurre elkartearen jarduren gainean berba egin eta azken kontuak aurkezteko.



Basotxoko zuzendaritza batzordeko kideak bilera hasteko gertu.

M.A.

Iber

Loteria  
Paper denda  
Liburuak

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39


Jon Díaz

Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

30. Eguzkigraf, Koop. Elk. 1979-2009 urteurrena

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4,  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF  
inprimategia

jai egitarauak  
kartelak  
gonbidapenak  
tarjetak  
aldizkariak  
inpresok  
errekordatorioak  
liburuxkak

KULTURA > UMEAK

# Liburuaren Egunaren harira, liburu truke azoka txikia egingo dute gaur ludotekan

Truke azokaz gain, ilustratzaile bat egongo da, 17:30etik 19:30era bitartean, ludotekara joaten diren umeei erakusten ipuinak nola margotu behar dituzten

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Azken urteotako ohiturei jarraituz, liburuaren egunaren harira, ludotekak hainbat ekimen gertatu ditu gaurko. 17:00etatik 19:30era bitartean, ipuin eta liburu truke azoka txikia egingo dute. Eguraldiak laguntzen baldin badu, ludotekako kanpoaldean egiteko asmoa dute, eta bestela, barruan.

Asteazkenean, umeei etxeko apaletan ahaztuta dituzten liburu edo ipuin zaharrak eraman dituzte ludotekara. Eramandako bakoitzaren truke, txartel bat banatu diete begiraleek haurrei. Gaurko azokan ludotekako beste erabiltzaileek utzitako liburuak jaso ahal izango dituzte umeei, jasotako txartel horren truke. Horren harira, Larraitz Antxia begiraleak aipatu du aurreko urteotan bezala gaur ere



Joan den urteko liburu truke azoka.

LUDOTEKA

liburuak eraman ahalko dituztela azokara, han trukatuak izan daitezten. Gogorarazi dute, aldi berean, 12 urtetik beherakoendakoak izan behar dutela.

MARRAZKI TAILERRA

Azokaz gain, tailerrak ere egongo dira toki berean, 17:30etik 19:30era. Ilustratzaile batek ipuinak nola margotu erakutsiko die.

GASTRONOMIA

## Krisi menua egingo dute bihar Muru Alden

Herriko elkarteek 20 euroekin erosketak egin eta menua gertatu beharko dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak gastronomiaren elkarrekin arteko olinpiadak egiten dabil. Mus txapelketa egin zuen urtarrilean, eta aste bukaera honetan krisi menua egingo dute. Elkarteetako kideek 20 euroekin erosketak egin eta lau lagunendako menua gertatu dute. Bihar izango da hori.

Muru Alde elkarteak, 20:30ean, elkartuko dira epaimahaiko kideak, egindako menuak baloratu eta onena hautatzeko. Herriko elkarte guztiei egin diete deialdia, eta, oraingoz, hiruren baiezkoa jaso dute (Urats Alde, Muru Alde eta Urbaltz). Espero dute gehiago izatea.

Epaimahaia osatuko dute Loramendiko kideek eta Taberna Berri jatetxeko sukaldari Javi Etxebarrietak.

## Ikusi Makusi, Debagoiena egoitzan

Aretxabaleko GSR Debagoiena egoitzan daudenendako ekintzak gertatzen hasi dira. Eguazten arratsaldean antzerkia izan zuten Oñatiko erretiratuen eskutik. Ikusi Makusi taldekoak izan ziren han, *El jardín de la alegría* antzezlan umoretsuarekin. Aktoreek lan bikaina egin zuten eta egoitzan bizi direnen txaloak jaso zituzten. Arratsalde bikaina pasa zuten guztiek.



IRATI GALLASTEGI

### oharrak

GAZTEAK

> **Gazte Oporraldian izena eman daiteke eguna baino lehen**

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen Gazte Oporraldian izena emateko epea zabalik dago apirilaren 29ra arte. 14 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago programa hori. Banaka edo taldeka egin ditezke izenemateak, gehienez hiru lagunekoak badira; horretarako bi bide daude: Aretxabaleko Gazteria Zerbitzuan eta Internet

bidez, [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) webgunean.

Maiatzaren 10ean eta 11n zozketan parte hartzeko onartutako izenak kontsultatu ahal izango dira Gazteria Zerbitzuan eta Interneteko esandako webgunean. Erreklamazioak egiteko aukera ere egongo da egun horietan. Oporretarako lekuak zozketa publikoaren bidez eta notarioaren aurrean esleituko dira, eta emaitzak maiatzaren 14an jakinarazi.

KIROLA

> **Mendi irteera Murruxorekin**

Murruxo mendizale elkarteak mendi irteera antolatu du maiatzaren 2rako, domeka, kostaldera. Irteteko ordua dagoeneko jarrita dago: 08:00etan, Azkeko autobus geltokitik. 15 euro ordaindu behar dira. Izena eman gura dutenek elkarteak Durana kalean duen lokaletik pasa behar dute martitzenean, 19:00etatik 20:00etara. Martitzenean bertan, hilak 27, amaitzen da horretarako epea.



Goi mailako Lanbide Heziketarako Berriazko Institutua

### Bi baldintza hauek betetzen badituzu:

- > Gutxienez 18 urte izatea
- > Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:
  - 2. BBB
  - LH-1
  - 2. IEE
  - DBH
  - Sarbide proba gaindituta izatea

Lan egiten duzun bitartean ERIZAINZAKO ZAINZTA OSAGARRIAK titulu ofiziala ateratzea erraza izango da zuretzat.

### Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide proba prestatu nahi duzu?

Nahikoa duzu 18 urte edukitzea. Etor zaitzez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu Inskripzioak apirilaren 30era arte.

Etxebarri auzoa z/g  
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)  
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43  
webgunea: [www.iaetxabaleta.com](http://www.iaetxabaleta.com)  
e-posta: [ia@iaetxabaleta.com](mailto:ia@iaetxabaleta.com)

■ ELKARRIZKETA: ANTONIO ESTOMBA / GINEKOLOGOA

# "Menopausian hezurrak aztertzea garrantzitsua da"

NEREA MENOR

**A**ntonio Estomba Udalaiz Medikuntza Zentroko ginekologoa da. Duela gutxi hasi zen bertan lanean eta orain, Donostia eta Irungoekin batera Debaioeneko emakumeak ere aztertzen ditu. Ginekologia proba ezberdinak sakonago ezagutzeko beharrezko informazio guztia eman digu medikuak, baita medikuntza arlo horretako beste hainbat datu ere.

**Noiz joan behar genuke ginekologoarengana aurrenekoz?**

Ez dago adin zehatzik. Emakumeak eskatzen duenean izaten da: hileroko irregularrak, azkura, edota zerbaitegatik larrituta daudenean izaten da. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke. Halakorik egon ezean, lehenengo erlazio sexualak izan ondoren gomendatzen dut nik bisita, zitologia eta osasun azterketa egiteko.

**Lehenengo hitzordua garrantzitsua izan ohi da neskendako. Zelako probak egiten dira?**

Erabateko esplorazioa egiten da. Bularrak eta besapeak aztertzen dira; ukitze baginala eta uteroaren lepoko zitologia egin ohi da. Ekografia egiteko aukera izanez gero, egokiena litzateke.

**Ginekologoa urtero bisitatze gomendioa egiten da. Beharrezkoa da?**

Beharrezkoa baino gehiago, komenigarria; dena ondo doala ziurtatzeko beharrezkoa.

**Azkenaldian, denon ahotan dago papiloma birusa (HPV). Bada, azalduko diguzu zer den hori?**

Birus horren ondorioz infekzio bat sor daiteke, geroago uteroaren lepoan lesioak sor ditzakeena. Gehienetan, sexu transmisioaren bidez hartzen da, zeluletan alterazioak eragin ditzake eta, ondorioz, kantzerra eragin. Hala ere, birus mota ezberdin asko daude, batzuk oso erasotzaileak, besteak gutxiago. Uteroaren lepoko lesioak birus agresiboek eragiten dituzte.

**Haurdunaldian zehar ere hainbat proba egin ohi dira.**

Hilerokoaren lehenengo atzeratzearen ostean ginekologoarengana jo behar da. Bisita hone-

tan, zehaztuko dugu enbrioia utero barruan ezarrita dagoen eta ekografia baten bidez bakarra edo anitza den ikusiko dugu. Lehenengo analitikoak egiten da eta baita asistentzia plan bat zehaztu ere. Horren ostean, hila-betero bisitatuko da ginekologoa eta zenbait ekografia egingo ditugu. Horrela, jarraipen sakonagoa egiteko gai izango gara, eta, fetuaren hazkuntza kontrolatzeaz gainera, malformaziorik dagoen zehaztuko dugu. Aurreneko ekografia haurdunaldiaren 11-12. astean egiten da; bigarrena, 20. astean; eta azkenekoa hirugarren hiruhilabetearen inguruan.

**Amniozentesia ere oso ohikoa izaten da.**

Haurdunaldiaren barruan amniozentesia anomalia fetalak aurkitzeko teknika da. Ziztada gidatu eta ekografia baten bitartez likido amniotikoa ateratzean datza teknika hau. Likido honek tan dauden zelula fetalez baliatuz aztertzen dira kromosomak. 21.

**"Papiloma birus erasotzaileen eragiten dituzte uteroaren lepoko lesioak"**

**"Likido amniotikoko zelula fetaleko kromosomak aztertzen dira"**



Antonio Estomba, Arrasateko kontsultan.

N.M.

kromosomaren trisonomia, esaterako, anomalia posible horietariko bat da; agian ezagunagoa Down Sindrome izenarekin.

**Haurdunaldiaren ostean garrantzitsua da osasun azterketak egitea, gorputzean izan diren aldaketa guztien berri izateko eta arazo posibleak baztertze.**

Erditu eta 40 edo 45 egun pasa ondoren, beste azterketa bat egitera joango da emakumea. Hitzordu horretan egitura guztiak analizatuko ditugu: perineoa, uteroaren lepoa, bagina...

**Baita menopausia garaian ere.**

Garai horretan azterketa orokorra egitea oso garrantzitsua da; batez ere, esplorazio mamarioa. Hezurren egoeraren berri izateko ezinbestekoa da kontrol zehatzak jarraitzea. Izan ere, menopausia garaian osteoporosi prozesua bizkortu egiten da. Hezur-densitometria eginez, galdutako hezur-masa zehaztuko dugu. Hori garrantzitsua da, proba horren emaitzak aztertuz emakumeak jarraitu beharreko tratamendua erabakiko dugu-eta. Baliteke jarraitu behar ez izatea ere.



centro médico UDALAITZ

- Radiologia
- Urologia

- Dermatologia
- Traumatologia

- Ginekologia
- Neumologia

- Barne Medikuntza
- Otorrinolaringologia

- Medikuntza Orokorra
- Gorputzeko Kaltea

- Psikiatria
- Pediatria

**MEDIKUAK**

<b>Radiologia</b>	<b>Osagile Talde</b> Juan Torres Amann Txema Alustiza Echevarria
<b>Urologia</b>	Alberto Lluch Costa
<b>Dermatologia</b>	Gonzalo Serrano
<b>Neumologia</b>	Carmen Jaca Michelena

<b>Traumatologia</b>	Eduardo Escobar Martinez Jesus Azkarate Garitano Francisco González Boch Edorta Esnal Baza Arsenio Diego Garcia Emilio Pernaut Sarnago
<b>Ginekologia</b>	Antonio Estomba Orio Julio Gonzalez Etxebarri
<b>Barne Medikuntza</b>	Fernando García Ruiz

<b>Otorrinolaringologia</b>	Julian Igartua Almandoz
<b>Medikuntza Orokorra</b>	Carmelo Etxeberria Uribealzo
<b>Gorputzeko Kaltea</b>	Angel Lafuente Aboin Alberto Legorburu Martin Armando Majarres Sanchez
<b>Psikiatria</b>	Justo Alzua Ruiz
<b>Pediatria</b>	Clinica Quirón

**ORDUTEGIA**

**Astelehenetik eguenera.**  
07:30etik 12:30era.  
14:30etik 19:30era.

**Egubakoitzetan.**  
07:30etik 14:00etara.

**Zapatu eta domeketan itxita.**

■ ELKARRIZKETA: MARI CARMEN PARDO / LIRAINENKO ARDURADUNA

# "Freeze zelulitisaren aurkako tratamendu iraultzailea da"

ARANTZAZU EZKIBEL

**T**eknologia puntakoena izatea garrantzitsua da emaitza egokiak lortzeko. Horregatik, urtero berrikuntzaren bat aurkezten du Arrasateko Lirain Estetika Zentroak. Oraingoan, gorputz eta aurpegi tratamenduetan azken iraultza aurkeztu digute: Freeze. Horretaz hitz egiteko, Liraineko arduradun Mari Carmen Pardo-ekin egon gara.

Esan, Mari Carmen, zer da Freeze?

Ameriketako Estatu Batuetako Venus Technologies enpresa ospetsuaren azken berrikuntza da. Freeze irrati-frekuentzia eta bulkada elektromagnetikoak konbinatzen dituen teknologia da. MP2 teknologia (Multi Polar Magnetic Pulse) eta irrati-frekuentzia bipolarra gehitzen ditu.

Eta horrekin guztiarekin zer lortzen dugu?

Buru borobilak azalaren geruza desberdinak zeharkatzen dituen energia eremu bat sortzen du, eta larruazalpeko mailara heldu. Berotasun horrek tratatzen dugun eremuan koipea desagertzea lortzen du, masaje bizi baten bitartez. Gainera, behin pasatzearekin 43 zentimetro koadroko azalera tratatuzakegu, eta ohiko tratamenduetan alderatuta denbora lau aldiz murriztu.

Ze tratamendutarako da egokia?



Mari Carmen Pardo, Lirain estetika zentroan lanean.

**"Lehenengo saioetatik emaitza ikusgarriak lortzen dira Freeze teknikarekin"**

Besteak beste, Freeze egokia da zahartzearen aurka, azala sendotzeko teknika moduan, bolumenaren murrizketan eta zelulitisaren prebentzioan eta murrizketan. Haren eraginkortasunak lau efektutan du oinarria: lipolisia, angiogenesisia,

**"Beherapenak egingo ditugu apiril eta maiatzean hainbat tratamendutan"**

kolagenoaren eta elastinaren berregituraketan eta kolagenoaren birsorkuntzan.

**Emaitza ikusgarriak dira, baina lehenengo emaitzak noiz ikusten dira?**

Lehenengo saioetatik emaitza ikusgarriak lortzen dira sabelean, belaunetan, izterren barrualdean, mokor inguruan, kartutxeretan eta besoetan, gehienbat.

**Teknologiari garrantzi handia ematen diozue Lirain estetika zentroan?**


Bai, hala da. Emaitza onak lortzeko ezinbestekoa da teknologia egokia izatea. Baina ez da gauza bakarra. Formazioari ere garrantzi handia ematen diogu. Urtean zehar formazio saio ugari egiten ditugu. Orain dela gutxi, adibidez, Kobido metodoaren gaineko ikastaro baten izan naiz.

**Zertan datza Kobido metodoa?**

Aurpegiko masaje japoniarra da Kobido. Milaka urteko teknika da eta osasunaren kontzeptuarekin lotu da betidanik. Aurpegiko zimurren eta biguntasunaren aurkako tratamendu naturala da.

**Udaberrian sartu gara; baduzue eskaintza berezirik datozen hilabeteetarako?**

Bai, apirilean eta maiatzean %20-30 bitarteko beherapenak egingo ditugu hainbat tratamendutan.



## FREEZE: Proportzio perfektuak

**FREEZE**, gorputz tratamenduetan azken iraultza. Saio gutxirekin, emaitza ikusgarriak lehenengo egunetik.

- Minik gabeko lipolisia
- Gorputzaren silueta hobetzen du
- Azalaren erreafirmatzailea
- Azalaren liftinga eta zahartzearen aurka
- Sabelaren, besoen eta iztarren zirkunferentziaren murrizketa

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.**

**Bixente Ferrer 1 ARRASATE Tel.:943 79 52 17**

**LIRAIN**  
ESTETIKA-ZENTRUA



■ ELKARRIZKETA: MAIDER EGINO SAGASTA ETA GARIKOITZ LOPEZ DE MUNAIN / IRATZARRI

# Iratzarrik eskaintzen du fisioterapia eta logopedia

ARANTZAZU EZKIBEL

**I**ratzarri fisioterapia eta logopedia zentroa da. Orain dela hiru urte ireki zuten zentroa Arrasaten Garikoitz Lopez de Munain fisioterapeuta eta Maider Eginogin logopedak. Fisioterapia mailan saio pertsonalak egiten ditu Lopez de Munainek; Eginok, ostera, logopediak dituen arlo guztiak lantzen ditu.

## Maider Eginogin Sagasta

LOGOPEDA

### Zer da logopedia?

Logopedia komunikazioko hiru arloen tratamendua lantzen duen diziplina da: mintzaira, lengoia eta ahots arazoak. Hainbat eratan azal daitezke: umeek dituzten arazoak, hezkuntzarekin lotuak edo helduak osasunarekin duten arazoak. Logopedia bi arlotan bereizten da: osasuna eta hezkuntza. Irakasleek umeak bidaltzen dituzte letra simple bat ondo ez esatearren (mintzaira), esaldi estrukturalak gaizki eraikitzearren (lengoia) edo irakurketa idazketan arazoak dituztelako. Helduetan lengoia arazoak dituztenak burmuineko lesiodun pertsonak dira. Azkenik, ahots arazoak daude; helduek, eta gero eta gehiago haurrek dutena.

### Orokorrean, patologia guztiak lantzen dituzu?

Patologia guztiak tratatzen ditut kabinetean, haurrekin, hel-



Lopez de Munain eta Eginogin, Arrasateko zentroan.

A.E.

duekin, hezkuntzarekin eta osasunarekin lotuak. Hala ere, patologia batzuk beste batzuk baino ezagunagoak dira eta horiek dira tratamendua eskatzen dutenak, haurrak eta ahots arazoak; azken horiek otorrinoak deribatuta datoz, kasu batzuetan mutuak edo eta seguru pribatuak ordainduta.

**"Gaur egungo estres egoerek, gero eta gehiago, ahots arazoak sortzen dituzte"**

### Lanean ahotsa erabiltzen dutenendako gomendioa.

Garrantzitsua da, batez ere, arnasa, postura eta tentsioak zaintzea, horrela ahotsa indartu gabe ateratzeko eta lesiorik ez probokatzeko.

### Garikoitz Lopez de Munain

FISIOTERAPEUTA

### Garrantzia ematen diozu bakarkako saioak egiteari.

Ahal den neurrian, saioa pertsona batekin egiten dut, uste dudalako garrantzitsua dela pertsona horrek intimitatea izatea, horrek bermatzen duelako tratamenduaren jarraikortasun

zuzena eta komunikazio errazten duelako.

### Zure ustez, prebentzioa da beste gakoetako bat.

Ohituta gaude sintomak ditugunean tratatzera mina, tratamendu sintomatikoak izatera. Nire ustez, garrantzitsua da pazienteak jakitea zer egin ahal

**"Eskuak erabilia, gaixotasunari baino gehiago pazienteari ematen zaio garrantzia"**

duen berriro ere arazoa ez izateko. Jendea hezi behar dugu nor bere osasunarekin jabe izan dadin.

Jarrera ohitura batzuk ematen dizkiet, zer zaindu behar duten esan, norberari dagozkion ariketak eman... Aholkulariak izan beharko genuke.

### Batez ere, terapia manuala erabiltzen duzu.

Eskuak erabiltzeaz gain, lagungarri izan daitezkeenak ere erabiltzen ditut. Gertuagoak dira eta fideltasun handiago ematen dute; gainera, aukera ematen dute saio gertuagoak izateko, eta gaixotasunari baino gehiago, pazienteari ematen zaio garrantzia.

Teknika ezberdinak daude; zenbat eta teknika gehiago jakin, aukera gehiago daukazuz; izan ere, paziente guztiak ez diote berdin erantzuten tratamendu bati.

### Ze arazo izaten dira ohikoenak?

Gaur egun, gorputz jarrerarekin badugu arazoa larria; hortaz, askotan, lunbarretako arazoak izaten ditugu. Beti esaten dut sofa fisioterapeuta batek asmatu zuela lana izateko. Gehienbat, arazo horiek izaten dira, eta baita zerbikalak ere. Mokorra, belauak, sorbaldak... bizkarrezurreko arazoak izaten dira.

Hona etortzen dira paziente mota asko: helduak, kirolariak, lantegietako langileak... Batez ere, langileak. Lan mekanikoak egiten dituzte, beti mugimendu bera eginez; hortaz, lesioak sortzen dira.

iratzarri  
FISIOTERAPIA - LOGOPEDIA

### FISIOTERAPEUTA:

#### Garikoitz Lopez de Munain

- Terapia kraneo-sakrala.
- Masaje terapeutiko funtzionala.
- Erlaxazio miofasziala.
- Bizkarrezurreko eskuzko terapia.
- Fibrolisi diakutanea.
- Bendatze funtzionalak.
- Kinesio Taping.
- Luzaketa analitiko eta globalak.
- **Aseguruak:** Lagun Aro, Axa, Winthertur, Alares.

Uribarri etorbidea 7 behea  
ARRASATE

Tel.: 943 53 39 90

Logopedia: 688 66 70 58  
iratzarriologopedia@gmail.com  
Fisioterapia: 688 66 70 62  
iratzarri@hotmail.com

### LOGOPEDA:

#### Maider Eginogin Sagasta

- Ahots arazoak
- Hizkuntza atzerapena
- Mintzaira atzerapena
- Ahoskera arazoak
- Burmuineko lezioak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak eta hainbat arlo desberdin



UDALA > EZOHICO OSOKO BILKURA

# Ekainaren erdialderako Santa Anako lanekin hastea gura du Udalak

Asteon onartu dituzte kontratazio prozesua eta baldintza ekonomikoak eta administratiboak, Udal Gobernu, EB-Berdeak eta PSEren aldeko botoekin

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Kostata, baina apurka aurrera doa Santa Ana komentuko kape-  
ra erabilera kultural eta soziale-  
rako areto bihurtzeko proiektua.  
Eguazten arratsaldean egindako  
ezohiko osoko bilkuran, udalbat-  
zak kontratazio prozesua eta bal-  
dintza ekonomikoak eta adminis-  
tratiboak onartu zituen. Udal  
Gobernuko kideen eta EB-Berde-  
ak eta PSE alderdietako zingoz-  
tzen aldeko botoa jaso zuen, eta  
H1! eta EAJkoen abstentzioa.

Edurne Iturbe idazkariak bil-  
kura horretan jakinarazi zuen  
ezarri diren epe guztiak aurrei-  
kusi moduan betetzen baldin  
badira, lan horiekin ekainaren  
erdialdean hasteko moduan egon-  
go direla. Horren harira, gaine-  
ratu zuen obra horietan interese-  
sa duten enpresa "kalifikatuek"  
maiatzaren 5era arte izango dute-  
la izena emateko aukera, eta  
maiatzaren 6an, kontratazio  
mahaiak horien aukeraketa egin-  
go duela. Jarraian, 10 eguneko

epea zabalduko da aukeratuak  
izan diren enpresek lan ildoak eta  
eskaintza ekonomikoa aurkez-  
ditzaten. Hori horrela, ekainaren  
7rako behin-behineko esleipena  
egitea espero dute.

Proiektu hori egiteko  
399.299,56 euro bideratuko ditu,  
gehienez, Udalak. Espainiako  
estatu fondotik iritsi den dirula-  
guntzarekin egingo da. Jakina  
denez, askotariko erabilera  
aretoaren egokitzapena bi fase-  
tan egingo da: lehenengoa, ekai-

naren erdialdean hasiko dena.  
Horretan, lokala egonkortuko  
da; horretarako, teilatua eta egi-  
tura berri egingo dira. Bigarren  
fasean, berriz, gainerakoa egite-  
ko asmoa dago.

**BIGARREN FASEA, LOTU BARIK**

Azken horren harira, eztabaida  
piztu zen eguazteneko osoko bil-  
kuran: EAJko Aitor Urrutiak eta  
EB-Berdeetako Juan Luis Meri-  
nok gogorarazi zuten bigarren  
fase hori egiteko dirulaguntzak  
lotu barik daudela. Pedro Las-  
gabaster alkateak onartu zuen  
oraindik ez dutela Diputazioare-  
kin akordiorik egin, baina "horre-  
tan" dabilzala: "Espero dut  
Aldundiak hitza betetzea, dipu-  
tatu nagusiak eta kultura dipu-  
tatuak eman dutelako". Dena dela,  
gaineratu zuen bestelako finan-  
tazio iturriak ere badaudela.

**ZALDIBAR ANTZOKIA**

Bestalde, PSEko Iñaki Pierruge-  
sek aretorako izen berria propo-  
satu zuen: Zaldibar antzokia.  
Inguruko toponimoetan oinarritu  
dela azaldu zuen. Kultura  
batzordean gaia jorrazteko  
geratu ziren.

> IRAKURMENA

## 'Bat ekarri, bi eruen' azoka dago gaur arratsaldean plazan

Urtero moduan, *Kataia eten barik* egitasmoaren harira  
*Bat ekarri, bi eruen* izeneko  
azoka egingo dute osterata  
gaur, egubakoitzea, arratsalde-  
an. Herriko plazan egingo  
dute, 18:00etatik 19:30era  
bitartean. Horretan liburuak  
trukatu dira.

> KIROLA

## Eskola arteko pilota partidua dago gaur arratsaldean

Pilota gustuko duten esko-  
riatarrek ez dute gaur herri-  
tik mugitu behar izango par-  
tidua ikusteko: arratsaldean  
eskola arteko norgehiagoka  
jokatuko dute herriko Udal  
Pilotalekuan. Etxekoak ando-  
aindarren kontra lehiatuko  
dira. Esandako partidua  
19:00etan hasiko da.

EUSKARA > UDALA

## 'Kantu eta jolasak' DVDa banatu diete 4 urteko umeei

Horrekin batera,  
gurasoendako  
aholkuak dituen  
liburuxka jaso dute

M.B. > ESKORIATZA

Asteon, Eskoriatzako ikaste-  
txeetako 4 urteko umeen arte-  
an *Kantu eta jolasak* izeneko  
DVDa banatu du Udalak. Horre-  
kin batera, Kike Amonarrirek  
idatzitako *Biharko euskara*,  
*gaur* izeneko liburuxka ere  
banatu du, gurasoendako ahol-  
kuekin.

Euskara teknikari Mari Kar-  
men Arrietak azaldu digunez,  
Debagoieneko euskara zerbi-  
tzuek 2006. urtean grabatu zuten  
DVD hori umeak protagonista  
zirela. Horren helburua da gura-  
soei umeekin euskaraz jolaste-

ko aukera eskaintzea. Gogora-  
razi du gaur egun adin horre-  
tako haurrak dituzten gurasoek  
ezagutzen dituzten umetako jola-  
sak gaztelaniaz izaten direla eta  
gabezia horri aurre egiteko egin  
zutela Debagoieneko udalek.  
Gaineratu du abestiak laburrak  
direnez, guraso erdaldunek ere  
ez dutela zailtasunik izango kan-  
tuak ikasteko.

**EDOZEINEK ESKA DITZAKE**

Bestalde, Kike Amonarriren  
liburuxkan hizkuntza-ohituren  
modu egokian egiteko ahol-  
kuak ematen zaizkie gurasoei;  
horrez gain, dituzten zalantzak  
argitzeko erantzunak ere jaso-  
tzen ditu. Arrietak aipatu du  
gainerako interesatuek Udale-  
ko Euskara Zerbitzuan ere eska-  
tu ahal dituztela DVDa eta libu-  
ruxka.

JENDARTEA > AITZORROTZ ELKARTEA

## Domekan mendi irteera egin ostean, Bitter Honeyren kontzertua gertu du Aitzorrotzek

M.B. > ESKORIATZA

Joan den domekan 20 lagunek  
inguruk Aranguren mendira  
egindako irteeraren ondoren,  
beste ekimen bat du gertu Aitzo-  
rotz kultura elkarteak: bihar,  
zapatua, kontzertua eskainiko  
du Bitter Honey taldeak Inker-  
nu tabernaren kanpoaldeko pla-  
zan, 19:30ean.

Arrasateko taldeak *Songs of  
love & destruction* diskoa aurkez-  
tuko du Eskoriatzan. Lan horre-  
tako zenbait kantu joko du lau-  
koteak, hard rockaren bidetik.

**AITZORROTZ KULTURA EGUNA**

Bestalde, elkarteak jakinarazi  
du aurten maiatzaren 8an egin-  
go dutela Aitzorrotz kultura egu-  
na. Antolatzaileek aipatu dute  
dagoeneko salgai daudela egun  
horretako herri bazkarirako  
txartelak. Aldatzen, Gozo Txikin



Domekan Aranguren mendian izan ziren Aitzorrotzekin.

AITZORROTZ

eta Inkernun eskura daitezke  
horiek, 15 euroren truke. Baba-  
jana egingo dute aurten. Horre-  
kin batera, Aitzorrotzetik azal-

du dute bezperan, maiatzaren  
7an, kontzertu sorpresa egongo  
dela Inkernu tabernan,  
23:00etan.



# Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 ESKORIATZA

943 71 40 63

KULTURA &gt; HITZALDIA

## Sare sozialen gainean jardungo du Maite Goñik martitzenean

Hitzaldia eskolako aretoan izango da, 18:30ean, eta azaldu dute DBHko guraso guztiei zuzendutako hitzaldia dela

**ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA**  
Internet eta sare sozialak izango dituzte berba datorren martitzenean eskolako aretoan. Blogaria eta sare sozialetan aditua den Maite Goñi ordiziarrak egingo du hitzaldia, 18:30ean. Kultura Saitetik adierazi dute hitzaldia eskolako aretoan izango den arren, DBHko ikasleen guraso guztiei zuzendutako hitzordua dela.


Internetek eta sare sozialek izugarriko aurrerapena izan dute azkeneko urteotan; hala, guraso askok zer diren ere ez dakiten neurrian, etxeko gazte txoek ia egunero erabiltzen dituzte. Ezjakintasun hori dela eta, guraso asko beldurtuta egoten dira.

**AUKERAK ETA ARRISKUAK**  
Goñik azaldu du Internetek ematen dituen aukerak eta arriskuak azalduko dituela martitzeneko hitzaldian. "Gurasoendako hitzaldia izango da. Jakin nahi izaten dute euren zer egin dezaketen arriskuak ekiditeko", azaldu du Goñik. Internet tresna bat dela dio, eta erabiltzen jakin behar dela; erabiltzen hezi, alegia.

Gurasoek izaten dituzten beldurretan hedabideen jarrera

garrantzitsua dela dio Goñik. "Komunikabideek zeresan handia dute. Beti azaltzen da sarearen alderdi txarra. Hortaz, gurasoek beldurra izaten dute norbaitekin geratu ote den euren seme-alaba, edo *bullying*-aren arazoaz ere galdetzen dute. Baina, hain urrun joan gabe, askok galdetzen dute: zertan pasatzen dute hainbeste denbora?", dio.

**SAREA ERABILTZEKO GOMENDIOA**  
"Gure garaian, kalean lagunekin egon ondoren etxera itzuli eta telefonoz deitzen genien lagun berei berba egiteko. Orain, gauza bera egiten dute, baina Internet erabiltzen dute komunikatzeko", azaldu du Goñik. Haren gomendioa da sare sozialetan sartzea alderdi onak ikusi eta seme-alabei aholkuak emateko.



PATXI OLABERRIA

## Giro onean amaitu dute urteurren jaia

Domekan amaitu zituzten Antzuolaren eta Aiherraren arteko 25. urtemugaren ospakizunak. Antzuolatik 80 bat lagun joan ziren Aiherrara bi solairuko autobusean. Giro onean pasa zuten eguna; horren adibide da goiko irudia. Trontzan ageri dira Antzuolako eta Aiherrako alkateak, ikusleak inguruan dituztela. Esan behar da ekitaldi borobila izan zutela domekan: herri kirolak, 25. urteurrenaren ekitaldi sinbolikoa, adierazpena, aureskua, bertsoa eta bazkaria izan zituzten Aiherran.

KULTURA

## Apika taldearen ipuin saioa bihar

A.E. &gt; ANTZUOLA

Azkeneko urteotako ohitura jarraituz, Patxiko Txerren ipuingintzaren emaitza jakinaraziko dute bihar, zapatua, Torresoroan. Lehenengo mailatik seigarren mailara arteko umeendako saioa izango da biharkoa.

Azkeneko asteetan hurrek eskolan landu dute ipuingintza; hala, egin dituzten ipuinak aurkeztuko dituzte bihar.

IPUIN SAIOA

Ekitaldia 18:00etan hasiko da Apika taldearen ipuin saioarekin. Torresoroako aretoan izango da ekitaldia; ondoren aurkeztuko dituzte lanok.

&gt; MUSIKA

## Euskal kantagintzaren abestiak Torresoroan

Euskal kantuez gozatzeko aukera paregabea egongo da gaur Torresoroan. Miren Fernandez abeslariak eskainiko du saioa, 22:00etan. Euskal kantagintzako abesti klasikoak eskainiko ditu Fernandezek; baina baita bere hainbat kantu ere. Kutzak lagun-dutako saioa izango da.

&gt; AISIALDIA

## Haur eta begiraleek udalekuan izena emateko epea zabalik

Dagoeneko zabalik dago gaztetxo zein begiraleek udalekuan izena emateko epea. Gaztetxoek maiatzaren 7ra arte eman dezakete izena; begiraleek, ostera, apirilaren 30era arte. Udalekuak uztailaren 1etik 15era izango dira. Umeen kuota da 40 euro-familia ugariak 28 euro.

bere ustez



Oier Peñagarikano

## Sare sozialak modan

**S**are sozialak modan jarri dira azkenaldian, Facebook, Tuenti, Friendfeed... Jendeak bere bizitza bertan konpartitzeko ohitura ikaragarria hartu du. Zer egin duen, nora joan den edo eta zer edo nor gustatzen zaion kontatzen dute. Ondorio bezala milioika pertsonaren bizitzak eta ohiturak gordeta geratzen dira, datu base erabilgarrietan, enpresa pribatuen eskuetan.

Ze helbururekin garatzen dituzte enpresek sare sozial hauek? Zerikusirik izango

## "400 milioi pertsonak euren izen-abizenak eman dituzte Facebook-en izena emateko"

ote du informazioa biltzeko tresna ezin hobeak direla?

Milioika pertsonak, 400 milioi gehiago, euren izen-abizen eta adina eman dituzte Facebook-en izena emateko.

Facebook berak bere pribatutasun politikan adierazten du, erabiltzaileen informazioa hirugarrenen batzuekin konpartitu dezakeela. Hau da, sare sozialak hirugarren enpresa batzuei saltzeko eskubidea duela adierazi du bere pribatutasun politikan.

Orain zure esku dago sare hauetan izena eman edo informazioa konpartitzeko erabakia hartzea, baina, behintzat, kontratua irakurri eta bi aldiz pentsa ezazu argazki bat jaso aurretik.

SUKALDEKO ALTZARIAK  
**Harizki**

**MUEBLES  
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**zabalo**  
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

**ZAHAR BERRITZEAK:**

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

KULTURA > LIBURUAREN EGUNA GAUR

# 'Ipuin lapurra' kontaketa eta Txirritolaren sari banaketa gaur

Gutzira, 55 lan jaso dituzte Txirritolakoek aurten; sari banaketaren aurretik ipuin kontaketa izango da, Liburuaren Eguna ospatzeko



Ipuin lapurra ipuin kontaketa izango da gaur, sari banaketaren aurretik. GOIENKARIA

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Txirritola euskara elkarrekin antolatutako ipuin lehiaketako sari banaketa egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan. Aurretik, *Ipuin lapurra* izenburuko ipuin kontaketa emanaldia izango da, 18:00etan.

Aurtengo ipuin lehiaketan 55 lan jaso dituzte Txirritolakoek. Honako hauek izan dira irabazleak: 3. mailakoen artean, Uxue Errasti eta Eba Aranburu (30 euroko bonoa eta liburu bana jasoko dute); 4. mailan Iñaki Gabilondo eta Jon Herrarte (30 euro eta liburu); 5. mailan, Ander Altuna eta Mikel Ullibarrirana (35 euro eta liburu); seigarren mailan, Ainhoa Kortabarria eta Joseba Zillaurren (35 euro eta liburu); eta, azkenik, DBHn dabilen Alaitz Gabilon-

dok 100 euro eta liburu eskuratuko ditu sari gisa. Lehen maila eta bigarren mailako ikasleek gelarako liburu eta joko sorta eramango dituzte. Arantxa Ozaktak, Dibina Arriolabengoak eta Xabier Agirrek jardun dute epaimahai lanetan eta haien lana biziki eskertu nahi du Txirritol-

lak. Epaimahaiak aurkeztutako lanen kalitatea goraiatu du.

HANKAPALU TAILERRA BIHAR

Txatxilipurdiren eskutik, bihar, zapatua, 12 urtetik gorako neska-mutikoendako hankapalu tailerra izango da gazte lokalean, 16:30ean hasita.

BERTSOAK > ARABAKO KOADRILA ARTEKO TXAPELKETA

## Aramaio-Altubepekoak, azken finalerdia domekan

E.M. > BERGARA

Gasteizko Kakiturri-Ehari taldearen aurka nagusitu ondoren, Arabako koadrila arteko bertso txapelketaren bigarren finalerdia jokatuko du Aramaiok domekan, Araialdeko Altubepekoak taldearen aurka, Amurrioko antzokian, 17:30ean. Irabaziz gero, Aramaio maiatzaren 8rako finale-rako sailkatuko da. Horrela izanez gero, Kakiturri-Ehariaren

aurka jokatuko dute finala aramaiokarrek.

Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Iker Agirre, Xabi Igoa, Idoia Beitia eta Iker Elexpuruk osatzen dute Aramaioko taldea.

Finala, esan bezala, maiatzaren 8an jokatuko da, Gasteizen. Domekarako bertso saiorako sarrerak Amurrioko antzokian bertan salgai jarriko dituzte, 5 eta 3 eurotan.



JULIO CALLEJA

## Pilotari gaztetxoek topaketa

Zuiako Koadrilaren pilota topaketa izan zen domekan Aramaion. Legutio, Zigoitia, Murgia, Izarra eta Aramaioko pilotari gaztetxoek jardun zuten; benjamin, alebin eta infantil mailetakoei, hain zuzen. Bi ordu eta erdiz 40 gaztetxo izan ziren jokoan; hamar, Aramaiokoak. Pilota zaletasuna sustatzea zen topaketaren helburu nagusia.

> DEIALDIA

## AHT Gelditu! Elkarlanak deitutako mendi ibilaldia domekan, Arrasate eta Aramaio artean

*Lurra, herrien etorkizuna: AHT gelditu!* lelopean, AHTren aurka mendi martxa egingo dute domekan Arrasate eta Aramaio artean. AHT Gelditu! Elkarlanak deituta, Arrasateko Markulete industrialdean hasiko da martxa, 09:30ean. Hiru orduko ibilaldiaren ostean, Arrasateko Biteri plazan herri bazkaria izango da.

> UDALA

## Ganadua identifikatzeko lepokoak banatuko ditu Aramaioko Udalak apirilaren 30era arte

Aramaioko mendietan dabilen ganaduaren kontrola eraman nahi du Udalak, eta, hori dela eta, ganadua identifikatzeko lepokoak banatuko ditu apirilaren 30era bitartean. Behiek, ahuntzek eta behorrek identifikatuta egon beharko dute aurrerantzean. Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu identifikatu bako ganadua erkin.

> KULTURA

## 'Aramaixotarrak atzerrian, ze esperientzia?' hitzaldia egunean eta 'Celda 21' egubakoitzean

Gaur, egubakoitza, ez da zinema emanaldirik izango, eta, beraz, *Celda 21* filma hilaren 30ean eskainiko dute kultura etxean, 22:15ean. Beizeran, egunean, *Aramaixotarrak atzerrian, ze esperientzia?* hitzaldia izango da kultura etxean, 19:00etan. Atzerrian ibilitako bost neska izango dira, euren esperientziaren berri ematen.



JULIO CALLEJA

## Errepide alternatiboa itxita asteburuan

Bihar, zapatua, eta domekan itxi egingo dute Untzilla eta Zabola arteko errepidea. Hain zuzen ere, asfaltatze lanengatik itxita izango da errepidea bi egunetan, 08:00etatik 19:30ak bitartean. Beraz, Arrasatera joan edo Aramaiora etortzeko Legutiorako errepidea erabili behar izango dute gidariek aipatutako ordutegian. Untzilla eta Zabola artean hobekuntza lanetan dihardute azken asteotan eta oraingo asteburuan errepidea asfaltatzeko aprobeztatuko dute Adif-ekoek.

JENDARTEA &gt; URTEURRENA

## Gerrako biktima elgetarrak omenduko dituzte domekan

11:00etan abiatuko dira herriko plazatik eta bidean bi lore eskaintza egingo dituzte: Salbadorren eta Intxortan

L.ZEBERIO/ A.EZKIBEL > ELGETA  
1937ko apirilaren 24an jausi zen Elgetako frontea, eta urteurrena baliatuko du Udalak omenaldia egiteko. Bi lore eskaintza egingo dituzte domekan, hilaren 25ean.

### 11:00ETAN PLAZAN

Herriko plazatik 11:00etan abiatuta Intxortako aterainoko ibilbidea egingo dute etzi. Bidean, bi lore eskaintza egingo dituzte: bat Salbadorko monumentuan eta bestea Intxortako atean.



luz Salbador ermitaren ondoan egindako lore eskaintza.

GOIENKARIA

Bestalde, Udalak aurreikusiten du Espaloiko harreragunean gerraren inguruan egiten diharduen ibilbide tematikoaren proiektua maiatz amaieran

zabaltzea. Hala, herritarrei dei egin die etxean garai hartako materialik edukiz gero udallexera eraman dezatela erakusketan ikusgai jartzeko.



OZKARBI TALDEA

## Ozkarbi mendi taldearen lehen irteera

16 lagunek parte hartu zuten apirilaren 18an (domeka) Ozkarbi taldeak egin zuen mendi ibilaldian. Esan behar da domekakoa sortu berri den mendi taldearen lehenengo irteera izan zela. Araotz-Orkatzategi-Andarto-Araotz ibilaldia egin zuten; irudia Ugastegiko Santakurtz ermitan hartutakoa da. Hurrengo irteera ekainaren 5ean egingo dute, Nafarroako Beraienera. Gaineratu dute norbaitek taldean lan egiteko interesa badu [ozkarbi.menditaldea@gmail.com](mailto:ozkarbi.menditaldea@gmail.com) helbidera idatz dezala.

**Aperribay, s.l.**  
Marmoldegi  
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

LEINTZ GATZAGA &gt; LANAK

## Biltegiko teilatua konpontzen hasiko dira

Bi hilabetez bukatuko dituzte lanak

MIRARI ALTUBE &gt; LEINTZ GATZAGA

E Planaren dirulaguntzarekin hitzartutako lanak asteotan hasiko dituzte. Udak ordezkariek uste dute maiatzerako hasita egongo direla biak eta bi hilabetez, hau da, ekain bukaerarako bukatuta izango dituztela.

TEILATUA RAMELEK

Madrilgo Gobernuak 28.432 euro iragarri zituen Gatzagarako eta horrekin bi lantxo egitea erabaki dute: batetik, Udak Biltegiari, gatz museo alboan dagoen eraikinari, teilatua konpontzeko dio. Eskoriatzako Ramel igeltsero-

AISIALDIA &gt; UMEAK

## Astelehenean hasita eman ahalko da izena udalekuetan

Udako aisialdia 2 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako eskaintza da

A.E. &gt; ELGETA

Apirilaren 26an, astelehena, zabalduko dute udalekuetan izena emateko epea; hala, maiatzaren 26ra arte egongo da zabalik izenematea. 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako aisialdi eskaintza da.

Izena eman gura duenak udallexera jo beharko du. Ume bakarratik ordaindu behar da: lau aste, 90 euro; bi aste, 70 euro; eta, aste bakarra, 45 euro. Bi ume izanez gero, umeko: lau aste, 70 euro; bi aste, 60 euro; eta, aste bakarra, 35 euro. Azkenik, hiru ume edo gehiago izanez gero, umeko: lau aste, 60 euro; bi aste, 50 euro; eta, aste bakarra, 30 euro.

DATUA

# 11

HELBURU

Helburuak dira: lagunartea, balioak, jarrera aktiboa, integrazioa, euskara, kooperazioa, kontsumorik eza, garapena, sozializazioa, ingurumena eta ohitura osasuntsuak.

UDALEKUAK, UZTAILEAN

Herriko jaien ostean, uztailaren 5etik 30era izango da udako kanpaina. Ordutegia izango da: 09:00etatik 13:00etara. Hala ere, Udalean adierazi dute umeei harrera pertsonalizatua egin eta bakoitzaren erritmoa errespetatzeko 09:00etatik 10:00etara egingo dutela harrera.

&gt; KIROLA

## Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako laugarren jardunaldia jokatu dute bihar arratsaldean

Elgetako bolatokian jokatu dute bihar, zapatua, Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako laugarren jardunaldia. 17:00etan hasita, ordu eta erdi inguru iraungo du lehiak. Batez ere, Debabarreneko partaideak etorriko dira, 70 lagun inguru.

&gt; KULTURA

## Liburuaren Eguna aitzakia hartuta liburuak aterako dituzte plazara gaur arratsaldean

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, Maria Elena Eztenagak liburuak aterako ditu kalera "Liburuaren Eguna ospatzeko". Liburu berrienak eta gehien saldu direnak aterako ditu, besteak beste. 16:00etatik aurrera egongo da plazan Eztenaga liburuekin.

&gt; DANTZAK

## Maiatzaren 26ra arte, eguaztenero, dantza jauzi eskolak emango dituzte Espaloian

Patxi Monterok gidatuko ditu dantza saioak. Eguaztenero izango dira, 19:15etik 20:30era, Espaloian. Udallexean eman behar da izena bost euro ordainduta. Dantza jauziak, Zuberoako branlea, axuri beltza eta Baztango zortzikoak ikasiko dituzte.

tza enpresak egingo ditu lanok eta bi hilabetez bukatuta izango dituzte.

Bigarren lana San Migel plazako hormari baranda jartzea izango da. Tarte batean altuera handia dauka eta hainbat herritarren eskaera izan da. Baranda hori Arrasateko Markulete galda-garintza enpresak egingo du. Neu-

rriak hartu lehenengo eta lanak gero tailerrean egingo dituzte.

LOKALA ITOGINEKIN

Bestalde, Lanbide Eskolako ikasleek berritutako udal lokala oraindik hutsik dago eta ez dakite zertarako erabiliko duten. Itoginak dauzka eta horiek konpondu arte ez dute erabakirik hartuko.

MENDIKO LASTERKETA > ALOÑAKO 6. IGOERA

# Inoizko parte-hartze handiena domekan

Aloñako igoerak sei urte beteko ditu domekan, eta oraingo ediziorako bete egin dute, lehenengoz, korrikalarien kupoa; 302 lagun izango dira irteera puntuan

XABIER URTZELAI > OÑATI

Lehenengo ediziotik Aloñako Igoerak harrera oso ona izan du korrikalarien artean. Besteak beste, egutegiko igoera gogorrenetakoa duelako -8 kilometroan mila metro igoko dituzte- eta antolaketa aldetik ere proba biribila delako. Domekara begira, baina, inoizko parte-hartze handiena izango da: "Gehienez 300 lagunendako tokia dugu lasterketan, eta urtero-urtero 250 korrikalaritik gora etorri izan dira, baina aurten bete egingo dugu lehenengoz 300eko zenbatekoa", adierazi du probako antolatzaileetako batek, Santi Mendiolak.

**ERREKORRAK SARITUKO DITUZTE**

Aste Santutik bueltan *Asteleheneko Goienkaria*-k jaso zuen ibilbidean ez direla aldaketak egongo, baina bai, ordea, sariak banatzeko orduan: "Aloñako Igoeran errekorra hobetzen duenak (1.12.55 gizonaekoetan eta 1.28.47 emakumezkoetan) 100 euro jasoko ditu; hori lehen ere egiten genuen, baina orain diru kopuru hori urtero-urtero gordetzen joango gara, saria handitzen joan dadin".

Errekorren inguruan, baina, sari gehiago izango dira aurten: "Igoerako eta jaitsierako erre-



Korrikalari bat, iaz, Urriagainen gora.

GOIENKARIA

korrak ere gehitu ditugu". Hau da, Aloña azkarren igotzen duenak honako denbora hauek hobetzen baditu (gizonaekoetan 49.27 eta emakumezkoetan 1.04) saria izango du, eta jaisten ere berdin (gizonaekoetan 22.25 eta 27.35 emakumezkoetan).

**10:30EAN, PLAZAN**

Lasterkariak Oñatiko plazan hasiko dute lasterketa, jakinda iaz baino eguraldi hobea izango dutela: "Iaz gogotik bota zuen euria, baina ikusi geunen horrela ere lasterketak arrakasta izan dezakeela".

> ZIKLOTURISMOA

## Bergarako 5+3 martxa zikloturistarako eman daiteke izena

Maiatzaren 2an egingo dute Gipuzkoako Challenge barruan Bergarako 5+3 martxa zikloturista, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea.

Irteera horren informazioa [www.biciprecisionigartua.com](http://www.biciprecisionigartua.com) helbidean daukazu, eta webgune horretan egin daiteke, baita ere, izenematea: aurrez egingez gero federatuek 18 euro eta federatuta ez daudenek, 27 euro.

Horrekin batera, honako blogean izango dituzue probaren gaineko xehetasun guztiak: <http://goiena.net/blogak/zikloturista>. Bai Bergarako martxakoa, eta baita zikloturismoaren gaineko beste kontu asko ere.

> ARTE MARTZIALA

## Euskadiko kenpo txapelketa egingo dute zapatuan Eskoriatzan

Eskoriatzako Atama Kenpo taldeak antolatuta Euskadiko txapelketa egingo dute bihar Intxaurtxuetako kiroldegian (16:00etan hasita).

Txapelketan EAeko taldeek hartuko dute esku, baina txapelketarekin batera erakustaldia ere egingo dute, eta modalitate horretan Iparraldeko eta Nafarroako taldeak ere izango dira. Hala, Atama taldetik adierazi dute txapelketan 90 lagunek hartuko dutela esku, eta tartean izango dira ibarreko ordezkariak: "Arrasatik bi lagun joango gara eta Eskoriatzatik beste hamar lagun inguru izango dira", adierazi du Iker Letonak.

> ESPELEOLOGIA

## Gaurtik domekara arte 28. espeleologia jardunaldiak gurean

Gaurtik hasi eta domekara arte, Aloña Mendi (AMET) eta Besaideko taldeek 28. espeleologia jardunaldiak antolatuko dituzte, eta bertan batuko dira 60 aditu.

Bi mendi talde horietako kideek egitarau zabala prestatu dute astebururako: argazkiak egiteko irteera, esplorazio teknikak lantzeko saio teoriko eta praktikoa, mendi ibilaldia, topo-kartografia, ikus-entzunezkoak, eta horrekin batera Gesaltzako kobetan esplorazioa ere egingo dute hiru egun hauetan. Horrekin batera, jardunaldiotan gogoan izango dute martxoan Udaltzen hil zen Joseba Iglesias gaztea, espeleologia taldekoa zen-eta.

Abantailaz  
betetako kluba!

Goiena  
kluba

## APIRILEKO ZOKETA

Telefonoa: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Kuota: 45 euro



### SASKIBALOIRAKO SARRERAK

Bidali KLUBA SARRERAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA

Bidali KLUBA ESAIT  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### UMEENTZAKO PUZZLEAK

Bidali KLUBA PUZZLEA  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



### EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA  
[Bazkidearen zenbakia]  
5195 zkra.



## SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

### GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN



- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautez-Arteaga (Bizkaia)
- [www.nekatur.net/txohebenta](http://www.nekatur.net/txohebenta)
- [www.toprural.com](http://www.toprural.com)

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;  
Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

FUTBOLA &gt; HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

## Ligan bigarren dagoen Portugalete geratzea da kategoriari eusteko lehen pausoa

Aretxabaletak puntu batera dauden Lagun Onak edo Eibar aurreratzeko beharra du; hiru jardunaldi dituzte horretarako

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan Aretxabaletak (38) Lagun Onak (39) eta Eibar B (39) ditu kategoriari eusteko kontrario zuzen; zaila izango da Leioa (41) borroka horretan sartzea. Aretxabaletaren atzetik bi talde daude –Salvatierra eta Retuerto Sport– dagoeneko ezer egiterik ez dutenak, eta Gordobilen mutilek jaitziera postuetan egon bai, baina oraindik ez dute trena galdu; azken geltokiraino ez dago amore ematerik.

Domekan ez dute kontrario apalena izango, bigarren dagoen Portugalete, baina dagoeneko horrek ere bost axola du. Bost axola du Aretxabaletak dagoeneko ez duelako buruaz jokatzetik, ez duelako inporta zenbat dauden min hartuta, edo zigortuta. Irteten direnak irteten direla, garaipenak bakarrik balio du, eta



Oinatz, Zamudioren kontra irabazitako partiduan, orain dela bi aste. GOIENKARIA

ez horrenbeste lortzeko bideak. Ezta kontrario zuzenek egingo dutenak ere, Aretxabaleta delako atzetik datorrena.

### MONDRAK MOJATEGIN BIHAR

Joan den astean Trintxerpen lortutako hiru puntuek ematen

duten aldarte ona aprobetxatuta hartuko du zapatuan Mondrak sailkapenean azken lekuan dagoen Euskalduna. Bergarak eta Aloñak kanpoan jokatuko dute: Bergarak laugarren dagoen Tolosaren zelaian eta Aloñak, Hondarribian.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**  
Cartagena-Reala  
Domeka. 12:00. Cartagano.

**Hirugarren maila**  
Aretxabaleta-Portugalete  
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Erregionala ohorezko ma.**  
Tolosa-Bergara  
Zapatua. 16:30. Berazubi.  
Hondarribia-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Ondartza.  
Mondra-Euskalduna  
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Erregional preferentea**  
Aretxabaleta-Antzuola  
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Lehen erregionala, igoera**  
Bergara B-Lengokoak  
Zapatua. 15:45. Ipintza.  
Martutene-Mondra  
Zapatua. 15:30. Martutene.

**Erregionala, kopa**  
UDA Arizmendi-Eibartarrak  
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Ohor. gazteak, kopa**  
Aloña Mendi-Ilintxa  
Zapatua. 16:30. Azkoagain.  
Sporting Herrera-Mondra  
Zapatua. 15:30. Herrera.

**Emakumezkoen Igoera f.**  
Mondra-Amara Berri  
Zapatua. 18:30. Mojategi.  
Zumaiako-Arizmendi  
Zapatua. 15:30. Aita Mari.

**Emakumezkoen Kopa**  
Bergara-Aloña Mendi  
Domeka. 17:45. Ipintza

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**  
Ortiziri-Eskoriatza  
Domeka. 11:15. Arrigorriaga.

**Bigarren maila**  
UDA Orly-Gamon Naturista  
Gaur. 20:45. Almen.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila, jaitziera**  
MU-Bide Bide Ibiza  
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Maila autonomikoa**  
Ocaso Berrío-Aloña Mendi  
Zapatua. 18:45. Santutxu.

**Gipuzkoako seniorrak, giz.**  
Soralue BKE-Internacional  
Domeka. 17:00. Labegarai.

**Easo Zahar-Aloña Mendi**  
Zapatua. 20:00. Donostia.  
TAKE Orbela-MU  
Zapatua. 18:00. Tolosa.

**Senior emakumezkoak**  
Eskoriatza-Cafes Aitona  
Domeka. 11:00. Intxaurtxu.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txap. Igoera**  
Corazonistas-Sor. Bergara  
Zapatua. 19:30. Gasteiz.

**Gipuzkoako Kopa**  
Ormaiztegi-Ford Mugarri  
Gaur. 20:30. Zubipe.  
Ereintza-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:00. Errenteria.

**Bigarren lurraldeko txap.**  
Ordizia-Arrasate  
Domeka. 12:00. Majori.

### PILOTA

**Herri Arteko Txapelketa**  
Egubakoitza, 19:00etan  
hasita, Eskoriatzan:  
Eskoriatza-Andoain.  
Zapatua, 10:30etan hasita,  
Tolosan:  
Tolosa-Arrasate

**Udaberri, eskuz banaka**  
Egubakoitza, 19:00etan  
hasita Bergaran:  
Bergara (Jorge)-Lapke  
Bergara (Osa)-Goierri  
Bergara (Osa)-Hondarribi  
Bergara(Perez)-Beloki  
Bergara(Rezusta)-Azkoitiko.

**Udaberri, eskuz binaka**  
Zapatua, 16:00etan hasita  
Bergaran:  
Olalde-Bergara2  
Euskal Jolas-Bergara3  
Eskoriatza-Intxurre  
Bergara-Azkoitiko

### ATLETISMOA

**Gipuzkoako eskola arteko txapelketa**  
Domeka goizean, Mojategin.

### MENDI LASTERKETA

**Aloñako Igoera**  
Domekan. 10:30. Oñatin.

### BORROKA ARTEA

**Euskadiko Kenpo txapelketa**  
Zapatua. 16:00. Eskoriatzan

### ESPELEOLOGIA

**28. Espeleologia jardunaldien barruan, ikus-entzunezkoak:**  
Ostirala. 18:30. Arrasateko gaztetxean: *En Busca de la sima mas profunda.*  
Zapatua. 19:30. Oñatiko Kultur etxean: *Record del mundo de profundidad en el Cáucaso.*

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

#### LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.  
T: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

#### JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



> **'WE ARE STANDARD'**  
Enpresagintzaren jaialdian joko dute, bihar, zapatua; haiekin egon gara > 32



> **'GERNIKA'**  
Aukeran dantza taldeak 1937ko gertakariez egin du ikuskizuna > 33



> **'AITAREKIN BIDAIA'**  
Zahartzaroaren gaineko antzezlan sariduna ikusgai izango da domekan > 33

## 'Olentzero & Company': euskarazko formatu handiko lehen musikala

### EGILEAK

Oihan Vega bergararrak idatzi ditu testu eta musika originalak

### LEHENA

Gabonetan estreinatuko dute musikala

### MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Formatu handiko beste musikal bat egingo dute Bergaran. Oihan Vega eta Txemi Etxebarria bergararrak *Olentzero & Company* musikala idatzi dute. Beste behin, bergararrak igoko dira oholtza gainera; guztira, 120 lagun, eta horietatik 30 umeak izango dira.

Eguaztenean egin zuten musikalararen aurkezpena Bergarako Musika Eskolan. Oihan Vega, Marije Ugalde, Valen Moñux eta Angiozarko bost neska-mutiko egon ziren ekitaldian. Bukaeran, Olentzero agertu zen, eta umeak agurtu zituen.



Musikaleko antolatzaileak, Olentzero eta Angiozarko neska-mutikoak, eguazteneko aurkezpenean.

MIREIA BIKUÑA

### JATORRIZKOA

Aurkezpenean esan zuten *Olentzero & Company* jatorriz euskaraz egiten den lehen musikala dela: "Orain arte egindakoak moldaketak izan dira. Oraingoan, baina, originala egin gura genuen".

Musikalararen ideia, libretoa eta musika Oihan Vegak egin ditu; Txemi Etxebarriak partiturak orkestratu, eta musika zuzendaria izango da; Josu Muxikak koreografiak egingo ditu; Marije Ugalde bakarlariren zuzendaria izango da; eta Valen Moñux, zuzendari nagusia.

### GUTUN BEREZIA

Olentzerori zorientasuna eskatzen dion Peru mutikoaren istorioa kontatzen du musikalak. Gabonetarako gutuna idatzi du Peruk, baina bere amaorde maltzurak apurtu egingo dio gutuna. Hori horrela, Olentzeroren gotorleku ezkutura joatea erabakiko du eskaera aurrez aurre egin ahal izateko. Bidaia horretan euskal mitologiako pertsonaien laguntza izango du Peruk: besteak beste, iratxoen, lamien, Anbotoko Mariren eta Mari Domingiren laguntza.

Antolatzaileek azpimarratu zuten Olentzeroren oinarritzko sustraiei eutsita, ukitu modernoak sartuko dituztela musika-lean: "Ikuskizun berritzailea eta apurtzailea izango da. Ohiko Gabon kantuekin batera beste-lako musika estiloak erabiliko ditugu: besteak beste, elektronika, pop doinuak eta rock indartsua". Hori guztiori, antzerkiarekin, abesbatzekin, dantzekin, zinemarekin eta txotxongiloekin hornituta.

### ESTREINALDIA, GABONETAN

Musikala antzezteko 120 pertsona igoko dira oholtzara, ondorengo taldeei esker: Hontza Produktzioak, Bergarako Musika Eskola, Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatza, Bergarako musikariak eta Eibarko Biraka Dantza taldea.

Dagoeneko hasi dituzte entseguak. "Ilusioz hasi gara lanean eta espero dugu aurretik egindako musikalek izandako arrakasta bera izatea", esan zuen musika eskolako zuzendari Marije Ugaldek.

Lan handia dute aurretik, Gabonetan lehen emanaldia egin aurretik. Oraindik ez dute datarik zehaztu, baina urtea bukatu aurretik egingo dute. "Aurrekoetan egindako moduan, Euskal Herriko areto handietan erakutsi gura dugu musikala, eta orain-txe gabilta datak zehazten. Era berean, ez dugu erabaki estreinaldia Bergaran egingo dugun", esan zuten.

### Aurreko musikalak

- > 1989, 'San Martzial Estanpa'
- > 1993, 'Miserableak'
- > 1997, 'San Martinen estanpa'
- > 1999-2001, 'Oliver!'
- > 2006, 'Seussen mundua'
- > 2009, 'Miserableak'

ESANAK

"Ikuskizun modernoa eta apurtzailea izango da; elektronika, pop doinuak eta rock indartsua erabiliko ditugu"

Oihan Vega > Egilea

"Espero dugu aurreko musikalek izandako arrakasta bera izatea; ilusioz hasi gara lanean, eta gogotsu gaude"

Marije Ugalde > Musika eskola

### Musikaleko protagonista aukeratzeko 'casting'-a egingo dute Bergarako umeekin

*Olentzero & Company* musikaleko protagonista nagusia Peru izeneko umea da. Pertsonaia hori antzeztuko duen mutikoa aukeratzeko *casting*-a egingo dute Bergarako umeen artean; hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren eta bosgarren mailetako neska-mutikoen artean aukeratzeko dute protagonista. Horretarako, ikastetxe guztietara gonbidapenak bidali dituzte. Datozen asteotan egingo dituzte probak, eta hilabete barru-edo aurkeztuko dute protagonista.

Peruren papera egingo duen umeari sari berezia emango diote antolatzaileek; hain zuzen, ikuskizuna ondo prestatzeko, urtebeteko formazioa jasoko du musika eskolan. Olentzerok emango dio saria eskura protagonista aurkezten duten egunean.

OSPAKIZUNA &gt; ENPRESAGINTZA FAKULTATEAK 50 URTE

# Enpresagintzak urteurren jaia egingo du gaur

Enpresagintza Fakultatearen eguna dela-eta ospakizunak egongo dira egun osoan

Malenkonia, Potemkin eta We Are Standard taldeen kontzertua dago gaur gauean Oñatin

NEREA MENOR &gt; OÑATI

Oñatiko Enpresagintza Fakultatearen (ETEO zena) 50. urteurrena ospatzen dihardute aurten. Gaurko, egubakoitza, fakultatearen eguna, ekintza asko antolatu ditu unibertsitateak goizean goizetik hasita. Ikasle, irakasle eta langileak 60ko hamarkadako jantziekin mozarrotuta joango dira; herri bazkaria egingo dute, kroka, magia emanaldia eta baita batukada ere.

Egunari amaiera emateko, 21:30ean hasita hiru kontzertu hartuko ditu Oñatiko unibertsitate zaharraren plazak: Malenkonia, Potemkin eta We Are Standard taldeen kontzertuak ikusi ahal izango ditugu, hurrenez hurren. Sarrera doakoa izango da.

GAUA, MUSIKAZ BLAI

Malenkonia talde oñatiarra igoko da lehena agertokira. Seiko-tearen pop-rocka Danbaka lehiaketako finalera iritsi zen 2007. urtean. Taldeak lehen diskoa,

*Hegazkadak dakar ekaitza*, argitaratu zuen joan den udan. Abestiak Malenkoniaren webgunean jaitz daitezke. "Grabazioak gauza asko ikasteko balio izan digu eta esan daiteke taldea heldu egin dela, eta horrek abestietan izan duen isla nabarmena da", adierazi digute kideek.

23:00etan, Potemkin taldearen bigarren diskoaren doinuak entzungo dira plazan. Duela lau urte kaleratu zen *Potemkin*, taldearen lehenengo diskoa, eta, izandako arrakastaren ostean, *Gauaren zaindariak* aurkezten dabilta Euskal Herrian zehar. Lehenengo diskoarekin apuntatu egin bazuten, oraingo honekin etenik gabe tirokatzen ari direla dio taldeak.

We Are Standard getxoztarrekin amaituko da gaua. Punk-funk eta dance-rock talde horrek kontzertu asko eman ditu Europar eta Ipar Amerikan. Sariak ere irabazi dituzte: MTV European Music Awards-etan Espainiako talde onenari emandakoa, kasu.



W.A.S.

We Are Standard &gt; Musikariak

## "Zuzenekoak festak dira: poza, dantza, desfasatzea..."

N.M. &gt; OÑATI

Ibarra hirugarrenoz bisitatuko du gaur We Are Standard taldeak. Oñatiko plaza gustuko omen dute eta gogoz datoz gurera. Aitziber Aranburuzabalak elkarrizketatu ditu Arrasate Irratian.

Zer eskainiko duzue Oñatin?

Estudioko erabaki eta eztabaiden ostean, zuzenekoak festak dira: poza, dantza, desfasatzea, oihukatzea... Oñatin, azkeneko diskoko abestiak joko ditugu, bertsioak eta lehenengo laneko *perlak*. Sorpresak ere egongo dira.

Gustura zaudete azkeneko diskoarekin? Nolakoa da?

Oso pozik eta harro gaude. Heldu da errekonozimendua. Pop kutsu handiagoa du lanak. Londresen grabatu dugu eta hania ezinezkoa da popik ez egitea, horretan onenak dira.

8 hilabeteko lana izan da diskoaren grabazioa, Andy Gill produktorearekin, gainera. Gustura ibili zarete?

Oso gustura ibili gara; hau zen gure aukera handia eta Andy Gill gure heroia. Eztabaida eta lan askoren ondoren guk nahi genuena irten da, eta soinua perfektua da.

Asko aritu zarete Euskal Herritik kanpo. Beharrezkoa da hori talde bat ezagutarazteko?

Beharrezkoa ez, baina lagungarria, bai. Batzuetan, kanpoko moden morroi gara, baita kazetariak ere. Kanpoan zerbait eginez gero, hemen hamaika bider azalduko dute.

Hirugarren lana noizko?

Ez dugu ezer zehaztu, baina horretan gaude. Maketak egiten ari gara, dagoeneko 15 ideia ditugu, baina 40 inguru nahi ditugu onenak aukeratzeko. Estiloari dagokionez, popa izango da nagusi, seguruenik.

MUSIKA &gt; KONZERTUA

## Su Ta Gar Arrasateko 3 aretoan izango da bihar



Su Ta Garrek Arrasaten 2007an egindako kontzertuaren une bat.

IMANOL SORIANO

23:00etan joko du taldeak; sarrerak dagoeneko salgai daude 10 eta 12 eurotan 3 aretoko leihatilan

N.M. &gt; ARRASATE

Bihar bertan izango dugu Su Ta Gar talde ezaguna Arrasateko 3 aretoan, 23:00etan.

Sarrerak salgai daude dagoeneko 10 eurotan Etxoste tabernan. Azkeneko momentura arte itxaroten duenak 12 euroren truke eskura ditzake aretoko leihatilan, 22:00etatik aurrera.

20 URTE

Azaroan atera zuen taldeak 20 urte izeneko lana. Durangoko Plateruenean grabatutako kon-

zertua eskaintzen dute bertan, bi CD eta DVD batez osatutako digipackean. *Basamortuko zalduna* eta *Begira* betiko abestiez gain, *Jainko hilen uhartean* eta azkeneko diskoetako kantak sartu dituzte eibartarrek. Guztira, lau orduko lana.

Duela gutxi David Zarzosa sartu zen taldera. Hura da Su Ta Garren baxu-jotzaile berria. Igor Oiarbide (orain artekoa) epe baterako sartu zen taldera (Asier Osorioren orde), eta denbora hori luzatu egin zen arren, heldu da behin betiko baxu-jotzailea.

3 URTE ARRASATEN EGON BARIK

2007an izan ziren Su Ta Gar taldekoak azkenekoz Arrasaten; Mondragon Unibertsitatearen 10. urteurrenako jai kontzertuan, hain zuzen ere. Ordutik hona, herriko eta bailarako zale askok izango dute taldea berriro ere ikusteko gogoia.



DANTZA > AUKERAN TALDEA

# 1937. urtean Gernikan gertatutakoaren gaineko ikuskizuna domekan Arrasaten

Donostiako konpainia Amaia antzokian dago, 19:30ean; dantza tradizionalak eta garaikideak uztartuko ditu emanaldian

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Dantza Garaikidearen VI. Zirkuituaren barruan, Edu Muruamendiarrak bergararrak zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak *Gernika mihise gaineko dantza* izeneko ikuskizuna eskainiko du domekan, 19:30ean, Arrasateko Amaia antzokian.

Konpainiaren laugarren lan horretan, 1937ko apirilean Gernikan gertatutakoa azaltzen da, bonbardaketa jasan zutenek kontatua. Dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen ditu, eta argiak eta koloreak erabiltzen ditu giroak sortzeko.

SENTIMENDU HANDIKO LANA

Muruamendiarrak esanetan, "sentimendu handiko lana da. Berezia da, orain arte egindako-



Aukeran konpainiako dantzariak, *Gernika* ikuskizunaren erdian.

WWW.AUKERAN.COM

ek ez zuten-eta gai konkreturik, eta oraingoan, hildakoak heriotzatik itzultzen dira, zer gertatu zen kontatzeko. Hondamendiaren aurretik nolako bizimodua zuten kontatuko dute, nola erori zen gerraren infernua herriaren gainera, nola hondatu zuen, eta nola, oroimenaren bitartez, jaio egin daitekeen ostera".

Ikuskizunean hamar dantzarik hartuko dute parte. Alaitz Ormazabal izango dute ondoan, ahotsaren bitartez istorioa modu garbian azaltzen. Ordubeteko saioa da.

BESTELAKO IKUSKIZUNAK

Esan bezala, Aukera konpainiak gaur eskainiko duen dantzaldia

Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Antzoki Sareek antolatutako Dantza Garaikidearen VI. Zirkuituaren barruan dago. Zirkuitu horren harira, bestelako ikuskizunak ikusteko aukera izango dute datozen hilabeteotan debagoiendarrek; Arrasaten, uztailean eta urrian, eta Bergaran, ekainean.

LITERATURA

## Espainiako Kritikaren saria jaso du Etxegoienek

M.B. > BERGARA

Fermin Etxegoien oñatiarrak aurtengo Espainiako Kritikaren saria lortu du *Autokarabana* nobelari (Pamiela) esker. Espainiako literatura kritikarien elkarteak euskarazko narratiba lanik onena dela erabaki zuen hilaren 17an.

"ERRETRATU FIDELA"

Espainiako Kritikarensariaren epaimahaiko kide Javier Rojoren esanetan, "gaur egungo euskal gizartearen erretratu fidela da" nobela, "modu ironiko eta desmitifikatzailean" idatzitakoa.



Fermin Etxegoien.

GOIENKARIA

ANTZERKIA > HIKA TEATROAK OÑATIN

## Zahartzarora izango da etzi protagonista

M.B. > OÑATI

Domekan, hilak 25, zahartzarori buruzko *Aitarekin bidaia* kronika hunkigarria eskainiko du Hika Teatroak taldeak Oñatiko Santa Anan, 19:30ean. Sarrerak 10 euro balio du.

Istorioren protagonistak Patxi (Joseba Apaolatz) eta aita (Joxe Ramon Soroz) dira. Elkarrekin bizi izatera kondenatuta daude biak, amak, hil aurretik, semeari aita zaintzeko eskatu zion-eta. Patxi hitza betetzen saiatuko den arren, ez da samurra

izango: aita gaixo dago eta zahartzaroko gorabeherak direla-eta askotan ihes egingo du beste mundura. Biak konturatuko dira ez dutela elkar ezagutzen. Dramarako osagai guztiak baditu ere, umoreari ere utziko dio tokia.

DONOSTIA ANTZERKIA SARIA

Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrek idatzitako lanak X. Donostia Antzerkia saria irabazi du. Jabier Mugurutzak ere parte hartzen du, zuzeneko musika-rekin ikuskizuna girotuta.



X. Donostia Antzerki sariaren lan irabazlea etzi ikusi ahalko da Oñatin.

GOIENKARIA

> ZINEMA

## Huhezinemako sari banaketa egingo dute hilaren 29an Arkupen

Eguenean, hilak 29, Huhezine-mako aurtengo lehiaketan aukeratutako hamar film laburrak sarituko dituzte Aretxabaletako Arkupen, 18:00etatik 22:00etara. Lehenengo, esandako film laburrak proiektatuko dituzte, eta jarraian, sari banaketa egingo dute. Bakoitzak 400 euro jasoko ditu.

Ekitaldian beste hiru sari banatuko dituzte: Huhezine-mako sari nagusia izango den euskarazko lan onenaren sariak (Goiena saria) beste horrenbeste diru jasoko du eta fikziozko eta dokumental film labor onenek aipamen berezia izango dute.




Finantzaketa kuota personalizatuak

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROTZEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

### J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

### IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

## VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

## ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

## YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehio eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko lehiok
- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

## LOREZAINZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17





ESKER ONA

## Arantza Leibar Mendizabal

Gasteizen hil zen 2010eko apirilaren 5ean, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko apirilaren 25an.

ESKER ONA

## Francisco Aizpurua Arregi

Oñatin hil zen 2010eko apirilaren 12an.

Gure ondoan egon zareten guztioi bihotz-bihotzez, mila esker.

*Azkoitian jaiotakoa,  
Munduan zehar ibilia,  
Esku zabalekoa,*

*buruz-argia,  
pentsaera irekikoa,  
ausarta, ekintzailia.*



Etxekoak.  
Oñatin, 2010eko apirilaren 25an.



Oñatiko **Amalia Iturralde** eta **Iñaxio Bikuña** 1960. urteko apirilaren 23an ezkondu ziren. Beraz, gaur urrezko ezteiak betetzen dituzte. Familia guztiarekin ospatuko dute. Zorionak, etxekoan partetik!

ESKER ONA

## Pilar Aranguren Agirrezabalaga Jabier Almortza Jaunarena

Une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi, eskerrik asko etxekoan eta familiakoen izenean.



Bergaran, 2010eko apirilaren 25an.

ESKER ONA

## Miguel Arregi Albizu

"Kostei"

Oñatin hil zen 2010eko apirilaren 16an.

Mila esker momentu latz hauetan gure ondoan egon zareten guztioi sendikoen izenean.

*Langile fina eta ixila  
ze begirada sakona  
baserri giroan jaio eta  
sasoi beteko gizona  
herri kirola gogoko eta*

*harrijasotzaile ona  
garai batean plazarik plaza  
"Kostei" hara eta hona  
zure indarra eta kemena  
izango da guztiona.*



Oñatin, 2010eko apirilaren 25an.

### hildakoak

- Lorenzo Jabier Zangitu Peña. Aretxabaletan, apirilaren 13an. 57 urte.
- Julio Ibarrondo Urtzelai. Oñatin, apirilaren 16an. 84 urte.
- Migel Arregi Albizu. Oñatin, apirilaren 16an. 65 urte.
- Rosa Mari Aberasturi Isasti. Arrasaten, apirilaren 16an. 61 urte.
- Alejandro Torre Etxeberria. Bergaran, apirilaren 17an. 89 urte.
- Pedro Ballejo Santana. Arrasaten, apirilaren 18an. 62 urte.
- Leon Ena Boraita. Bergaran, apirilaren 18an. 86 urte.
- Teresa Pujol Pujol. Aretxabaletan, apirilaren 18an. 93 urte.
- Pilar Aranguren Agirrezabalaga. Bergaran, apirilaren 19an. 65 urte.
- Isabel Diego Ortiz. Arrasaten, apirilaren 19an. 77 urte.
- Juan Muniategi-Andikoetxea. Bergaran, apirilaren 20an. 78 urte.
- Martina Olañeta Elejalde. Antzuolan, apirilaren 21ean. 96 urte.

ESKER ONA

## Juan Muniategi-Andikoetxea Legorburu

Bergaran hil zen 2010eko apirilaren 20an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko apirilaren 25an.

URTEURRENA

## Ane Telleria Inurritegi

Oñatin hil zen 2005eko apirilaren 20an, 22 urte zituela.

*Egia da, heriotzaren lumak  
lurrezaten gaituenean ere,  
bizitzak berdintsu irauzen duela munduan.  
Baña zu joanda biharamunean eguzkiak  
argituko du oraindik?  
Zenuen bizipoza da orain  
gure biharamunak argitzen dituen.*



Zure kuadrillia.  
Oñatin, 2010eko apirilaren 25an.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**  
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**Bergara**  
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**  
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**  
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.  
Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

**Aramaio**  
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**  
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**  
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 120 euro.**  
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **160 euro.**

**Goiena klubeko bazkideek: 110 euro**  
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **150 euro.**

**Goienkaria: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



URTEURRENA

## Esperanza Elizondo Erviti

Lehen urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.

*Zu oroitzu gure bidea egingo dugu.*



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko etxekoan izenean.

URTEURRENA

## Maritxu Etxezarreta Muñoa

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 25ean, 12:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari ospatuko da.

*Bizi legeak eraman zaitu zeruraino bapatean,  
Aitonarekin lehen bezala pozik betiko bakean,  
Zure babesa ez degu galdu hemendikan joatean,  
Beti egongo zera amona bizirik gure artean.*



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko etxekoan izenean.

URTEURRENA

## Jose Antonio Ayastuy Garai

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 25ean, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea

# Apirilak 23-29

LEIRE KORTABARRIA  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Kontzertua



ELGETA

### > Oi! The Arrase punk talde klasikoaren kontzertua izango da gaur, egubakoitza

Mallorcako Oi! The Arrase punk talde klasikoak kontzertua egingo du Espaloia antzokian, 22:00etan. Haiez gain, Aggressive Combat eta Against the Rapist izango dira agertokian. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan 10 eurotan.

## Kontzertua



ESKORIATZA

### > Arrasateko Bitter Honey taldeak kontzertua egingo du Inkernun

Arrasateko Bitter Honey taldeak diskoa atera berri du *-Songs of love & destruction-* eta hura aurkezteko kontzertua egingo du bihar, zapatua, Inkernu taberna kanpoko plazatxoan, 19:30ean, Aitzorroztz elkartek antolatuta.

## Antzerkia



BERGARA

### > Amaia Arriaran bergararrak ipuin kontaketa saioa egingo du

Eguenean, hilak 29, Oihulari Klown taldeko Amaia Arriaran ipuin-kontalari bergararrak *La asesina temporal y otras historias* delako emanaldia egingo du. Pol-Pol tabernan izango da, 22:30ean hasita.

dute. Bihar, zapatua, izango da Gaztetxe Eguna: poteoa, herri bazkaria, bertso saioa, ginkana eta gaupasa egingo dituzte.  
Ekitaldiak, gaztetxean.

## Musika

BERGARA

### > Musika eskolak hainbat emanaldi antolatuta ditu

Honakoak egingo ditu musika eskolak datozten egunotan: kantu ikasleen kontzertua (gaur, egubakoitza, Sierbetan, 20:00etan), II. Musika Moderno lehiaketa (etzi, domeka, Zabalotegi aretoan, 11:00-13:00 eta 16:00-20:00), klarinete, flauta eta saxofoi kontzertua (astelehenean, Zabalotegi, 18:30) eta ikasle nagusien emanaldia (musika eskolan, 18:30).

Emanaldi gehiago hurrengo aste osoan.

## Antzerkia

BERGARA

### > '1, 2, 3, Inaxito 3. partea' delako antzezlan, umeendako

Lankuren eskutik, *1, 2, 3, Inaxito 3. partea* antzezlan ikusteko aukera izango dute umeek. Kutzak lagundutako saioa da.

Gaur, egubakoitza, Angiozarko saloian, 18:00etan.

BERGARA

### > '¡A gusssssto!' umorezko antzezlan ikusteko parada

Glu-glu taldeak *¡A gusssssto!* umorezko antzezlan egingo du. Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitia dira protagonistak.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

## Erakusketak

ANTZUOLA

### > 'Antzuolako emakumeak eta lana' delako erakusketa

*Antzuolako emakumeak eta lana. Etxe barruan eta kanpoan* delako argazki erakusketa ipiniko dute oraingo aste bukaeran.

Zapatuan eta domekan, Oларanen, 18:30etik 20:00etara.

ESKORIATZA

### > 'La Pasionaria'-ren gaineko erakusketa ikusteko aukera

Eskoriatzako Udalak eta Ezker Batua-Berdeek antolatuta, *Pasionaria: bere ahotsa bizirik dago* delako erakusketa izango da Ibarraundin. Espainiako Alderdi Komunistak utzitako 50 argazki erakutsiko dituzte.

Apirilaren 26tik maiatzaren 9ra, Ibarraundin, asteleheneetik egubakoitzera 09:30-13:00 eta 18:00-20:00, eta zapatu eta domeketan, 12:30-14:00 eta 18:30-20:30.

OÑATI

### > Gabriela Mistralen omenezko erakusketa kultur etxean

*Gabrielaren umeak, Mistralen Txileak* izenburuarekin, argazki erakusketa ipini du Agustin Goenagak.

Egunero dago ikusgai, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

### > Nekane Eskibelen margolanak ikusgai daude Hamaikan

Espoloko Hamaika tabernak Nekane Eskibelen olioak ditu. Animaliak dira gaia.

Maiatzaren 6ra arte.

## Ospakizunak

DEBAGOIENA

### > Arantxa izenekoek ospakizuna egingo dute Arantzazun

Arantxa izeneko emakumezkoek bi urtean behin egiten duten batzarra egingo dute maiatzaren 2an. Hitzaldia izango dute Gandiaga Topagunean (10:30), denbora libre (11:15), meza (12:00), talde argazkia eta musika segidan, bazkaria (14:00) eta trikitia eta dantzaldia, bukatzeko. Arantxa guztien artean, bi pertsonaren-

dako aste bukaera zozketatuko dute Arantzazu Hotelean pasatzeko.

Parte hartzeko, 35 euro sartu Euskadiko Kutzako 3035 0170 54 1701019652 kontuan, izena eta bi abizenekin. Hilaren 25a da azkeneko eguna.

ARRASATE

### > Gaztetxe Eguna egingo dute zapatuan AGAKOko kideek

Gaztetxearen ospakizunekin jarraituz, gaur, egubakoitza, arratsaldean, espeleologia taldeak diapositibak emango ditu, eta gauean, Zea Mays eta Xasta taldeek kontzertua egingo

ARRASATE

### > 'After' musika emanaldia izango da 3 aretoan

*After hours* musika emanaldia egingo dute Ima Txill-Aut, Oxide-Manu eta Haitzek.

Etzi, domeka, 3 aretoan, 06:00etan.

ANTZUOLA

### > Euskal kantagintzako abestiak joko ditu Miren Fernandezek

Miren Fernandez zarauzarrak euskal kantagintzako abesti klasikoak eta beste batzuk eskainiko ditu.

Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 22:00etan.

PROPOSAMENA



ARRASATE

### > Debagoieneko musika eskolek kontzertua egingo dute, ikasi dutena erakusteko

Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Sorluzeko musika ikasleek ikasturtean bereganatu dutena erakutsiko dute kontzertuan. Amaitzeko, Bea Asurmendi eta haren taldeak joko dute. Egubakoitzean izango da.

Bestalde, bihar, zapatua, 23. eskola arteko abesbatzen topaketa izango da Uarkapen, 17:00etan, Arizmendi, Txanxiku eta San Martin ikastetxeekin. Haitiren alde izango da.

Musika eskolen emanaldia gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 18:30ean.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

### GAUR GAUEAN: BEHAKETA ASTRONOMIKOA

Jarduera hau Donostian ospatuko den *Olatu Talka Jaialdiko* gitarauaren barne dago

22:00-23:30

#### Teleastronomia saioa:

Kanariar irletako teleskopioekin konekzioa internet bidez. Jendeak, behatoki batetan nola lan egiten duten ikusi ahal izango du eta baita astrofisikoei zuzenean galderak egin ere.

23:30-01:00

- Behaketa publikoa, museo-ko kanpoaldean. Aranzadiko kideek ekarritako teleskopioetatik zuzenean behatzeko aukera.  
- Planetariumeko zuzeneko saioa: "Unibertso altxorrak"  
- Planisferio baten erabilerearen azalpena

**Sarrera libre.** Programazioa eguraldiaren arabera alda daiteke.

**Garraio publikoa:** Donostiako udalak ohiko zerbitzuez gain, autobus bat jarri du saioa bukatzean hirira jeisteko.



Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramón.org](http://www.miramón.org)

**Ordutegia**  
Astelehenean ixita.  
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.  
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.



# Badator 'Xaxau' birusa

**APIRILAK 30** Txosna batzordeak plazan batu nahi ditu herritarrak jaietako spota grabatzeko

**JAI-GIROA KUTSATUZ** 'Xaxau' birusak herriko elkarte eta eragileak eta herritarrak kutsatuko ditu

**ARRITXU BARRUSO** > BERGARA  
Badatoz Pazkoak, Bergarako Mendekoste jaiak; hori horrela, *Xaxau* birusa esnatzen joateko garaia iritsi da. Txosna batzordeak joan den urteko jaietan aurkeztu zuen herritarren aurrean *Xaxau* birusa: "Guztiok barruan dugun eta jaietan esnarazten laga behar dugun birusa". Bada, aurrean ere hura izango da Bergarako jaietako protagonista.

**HILAREN 30EAN, DENOK PLAZARA**  
*Xaxau*, izenak dioen moduan, birus zirikatzailea da eta oraingo honetan ere herritarrak xaxa-

tu nahi ditu, jaiak gertuan direla ohartarazteko eta festarako gogoa pizteko.

Apirilaren 30ean herriko plaza etorriko da *Xaxau*. Txosna batzordeak Bergarako jaiak iragartzeko spot bat grabatu nahi du; asteen hasiko dituzte grabazioak. Asmoa da birusak herriko elkarte eta eragile ezberdinak bisitatzea jai-giroa kutsatzeko: "Grabazioak egingo ditugu herriko elkarte eta eragileekin, eta bertan ikusiko da birusak kutsatu egiten dituela. Ondoren, herritarrak kutsatuko ditu; hori apirilaren 30an izango da, herriko



'XAXAU' BIRUSA Txosna batzordeak spot bat grabatuko du Bergarako jaiak datozela iragartzeko.

GOIENKARIA

plazan", azaldu digute Txosna batzordeko kideek. Hori horrela, deialdia egin nahi diete bergarako guztiei: datorren egubakoitzean, 18:00etan, ahalik eta herritar gehien batu nahi dituzte San

Martin plazan. Herritarrak Barrenkaletik plaza aldera joaten grabatuko dituzte *Xaxau* birusaren konpainian. Blusak janztera ere animatu nahi dituzte herritarrak.

**HERRIAN GIROA BEROTZEN...**

Spota tabernariei emango diete jaiak hasi baino pare bat aste lehenago telebistan ipintzeko, eta jaietako txosna egitaraua ere bideoarekin irekiko dute.

**ahobero**

"Ez daukat klaserik, egun guztia aupatsak botatzen ematen dut "

**Zoe Saldana** > Aktorea  
*Avatar* film arrakastatsuko aktoreak esandako hitzak dira. Antza, korrokadak klase kontuak dira eta klasedunek ez dute horrelakorik egingen. Dena dela, Saldana, aitortu behar dugu gauza bat dela noizean behin korroskadaren bat botatzea, edo zuk diozun moduan egun guztia aupatsak botatzen ematea. Naturala eta zintzoa izan da, behintzat.

**iturri onetik**

**Emakumeen osasun sexualaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte Arantzazun**

Haurralde Fundazioak antolatuta, maiatzaren 5ean, 6an eta 7an, nazioarteko emakumeen osasun sexual eta ugalkorren inguruko jardunaldiak egingo dituzte Arantzazun. Hala, Haurralde Fundazioak aldarrikatu nahi du emakumeen osasun sexuala eta ugalkorra eskubide bat dela. Beste herrialde batzuetako errealitatea ere aztertuko dute; Espainia eta Hego Amerikatik ere etorriko dira hizlariak.

**piperrautsa**

**Gailurra**

Lehia gogorrean dabil Edurne Pasaban, zortzimilako hamalau gailurrak lortzen dituen lehen emakumea izan nahian. Orpoz orpo dabilki Oh Eun-Sun korearra helburu berarekin. Eta hara non biak azken txanpan daudela, Edurnek berak zalantzan jarri duen korearrak benetan lortu ote zuen aurreko gailurretako bat.

Inork ez baitu nonbait bermatzen gailurra zapaldu izana. Imajinatzen duzue hori beste edozein kirolletan; hau da, kirolariak berak azaldu behar izatea ea helburua lortu duen? Nik ez. Are gutxiago bermerik gabeko lehia hori irabazteko norberaren eta inguruko bizi arriskuan jarri behar denean, diru mordoa gastatzeaz gain. Lehen ere ez nuen oso gogoko goimendietako borroka komertziala, baina oraingo honek marka jarri du. Honek bai.

**ai, ene!**



**Estutasun bat izanez gero, komuna bertan**


Bizikletatan denetik ikusita genuela uste genuen, baina ez! Egin beharrekoak pedalei ematen zaien bitartean egin behar dira?

www.fotos-curiosas.com

**Carrascal aroztegia**

SUKALDERAKO ALTZARIAK  
BAINURAKO ALTZARIAK  
HORMA ARMAIRUAK  
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15  
Uribarri Auzoa  
20500 Arrasate  
Tel./Faxa: 943790182  
scarrasc\_1@infonegocio.com



**ESKAINITZA BEREZIAK!**

**FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA**